

Gonzalo Oyarzún

LIBURUTEGI IMAJINATUA

Komunitateak ereiteko lorategia



LIBURUTEGI IMAJINATUA

Komunitateak ereiteko lorategia

Gonzalo Oyarzún



Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio
Zentroetako Profesionalen Euskal Elkartea
Asociación Vasca de Profesionales de Archivos,
Bibliotecas y Centros de Documentación

LIBURUTEGI IMAJINATUA

Komunitateak ereiteko lorategia

Peruko Biblioteka Nazionalak argitaratutako eta Gonzalo Oyarzunek idatzitako "La biblioteca imaginada: jardín para sembrar comunidades" liburuaren itzulpena eta edizioa egin du ALDEEK, Creative Commons lizentziarekin zabalduko lanaren lehen edizioa erabiliz.

Egilea

© Gonzalo Oyarzún

Azala

© Maite Gurrutxaga

Hitzaurrea

© Iban Zaldua

Argitaratzailea

ALDEE Elkarte

Itzulpena

Rosetta Testu Zerbitzuak S.L.

Inprimaketa-maketazioa

Antza Komunikazio Grafikoa

Euskarazko testua berrerabiltzeko lizentzia

Aitortza-EzKomertziala 4.0 Internazionala (CC BY-NC 4.0)

Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin egindako argitalpena

L.G.: D 00231-2023

ISBN: 978-84-124561-1-0

AURKIBIDEA

ESKER HITZAK Gonzalo Oiartzun.....	7
GURE IMAJINARIO PROPIOAN SARTU NAHI DUGUN LIBURUA ALDEE	11
<i>BIBLIOTEKARA</i> -ipuin itxurako hitzaurre bat- Iban Zaldua	13
LIBURU HONI BURUZ	23
LIBURUTEGIA, ASKATASUNA ETA ERRESISTENTZIA	25
LIBURUTEGIA ESPAZIO PUBLIKOAN.....	33
LIBURUTEGIA GIZARTE GARAIKIDEAN	37
LIBURUTEGIA ETA KOMUNITATEA	43
LIBURUTEGIA ETA GIZA GARAPENA	49
LIBURUTEGIA ETA GARAPEN EKONOMIKOA	59
LORATZEN ARI DIREN KOMUNITATEAK LATINOAMERIKAKO BOST LIBURUTEGIREN ESPERIENTZIAK.....	67
LIBURUTEGI IMAJINATUA	117
ERREFERENTZIAK	120

ESKER HITZAK

Liburu honen edizioa oso berezia da niretzat. Eta lerro hauek irakurtzen ari bazara, jakin beharko zenuke herentzia handia dagoela lan honetan. Noizbait, gizon eta emakume talde batek urrutiko lurretara eraman zuten legatu baten parte da, gaur liburu gisa itzultzen dena bere etxera, itzulerako erromesaldi baten gisara, oraingo honetan komunitate eta jakintza berriekin.

Liburu hau, batez ere, egunero-egunero, planeta honetako mota eta tamaina guztietako ehunka liburutegik egindako ahalegin handiari esker idatzi da; horiek izan dira inspirazio iturri hemen idazten den lerro bakoitzetarako. Aitzitik, munduko ertz bakoitzean, liburuzain guztiek, lanbidez, bokazioz eta ofizioz, imajinatutako liburutegia errealitate bihurtzeari esker idatzi da lan hau. Hain zuzen, pertsona horiek dira liburutegien eta komunitateen aurrean diferentzia markatzen dutenak. Haiengandik ikasi dut liburutegiei buruz dakidan guztia; nire akademia eta ondarea dira.

Liburu honetan betidanik sinetsi dutenei ere eskerrak ematen dizkiet. Ezio Neyra Magagnari, orrialde hauek idatz nitzan agertu zidan gogo biziagatik; Peruko Liburutegi Nazionaleko nire lagunei, batez ere, liburuzain publikoei zuzendutako lehen edizioa gaztelaniaz argitaratzeagatik.

Mila esker handi bat Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarteko (ALDEE) nire lagun guztiei, euskarazko edizio zaindu honi bizia eman baitiote, eta, gaurtik aurrera, inoiz berriro bereiziko ez gaituen harri batek batzen gaitu orain.

Liburu hau guztiz berria eta ezberdina da Iban eta Maitei esker. Fikziozko liburuek hitzaurre serioak izaten dituzte, batere fantasiakoak ez direnak. Liburu honek, ordea, ez du inolako fikziorik garatu nahi bere orrialdeetan, eta harrigarria bada ere, gaia gaur egunera ekartzen duena Hondamendi Handiaren ondorengo etorkizunetik idatzitako hitzaurrea da. Eskerrik asko Iban Zaldua, harribitxia. Eta eskerrak eman nahi dizkiot, bereziki, Maite Gurrutxaga artista eta ilustratzaileari ere, edizio honen azala bikain ilustratzeagatik.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot amets honen kudeatzaileari, nolabait, hark ere altxatu baitzuen liburu imajinatu hau. Eskerrik asko, maitasun eta miresmen handiz, Fernando Juarez Muskizko liburuzainari. Izan ere, ohore handiz ezagutu nuen duela bi hamarkada, eta harekin ibili naiz liburutegien arrastoan. Fernandok irmotasunez pentsatu zuen liburu hau libreki zabaldu

behar zela. Baina, batez ere, eskertzen diot, nire seme-alabekin hitz egiten dudan hizkuntzan idatzitako hitz horiek gaur nire arbasoen hizkuntzara iristearen erantzule bera delako. Horrekin zirkulu bat ixten dela sentitzen dut: odolarena eta herentziarena, zubiak eraikitzen dituen etorkizunarena.

Mila esker. Inoiz ez dut nahikoa eskertzerik izango.

Gonzalo Oiartzun

GURE IMAJINARIO PROPIOAN SARTU NAHI DUGUN LIBURUA

Gure lan esparruetan ematen ari diren aldaketen leku-ko gara, baina horietara egokitzeko eta berrikuntza guztiekin eskutik hartuta joan ahal izateko, ALDEEek ezinbesteko jotzen du etengabeko formazioa. Ezagutza hori, ordea, ez da soilik ikastaroak edo jardunaldiak antolatuz jasotzen, gure eguneroko lan-tresna ditugun liburuetan dago eta ez dugu baliabide hori bazter utzi nahi.

2021ean, ***Antolatzearen diziplina (The discipline of organizing)*** liburuarekin hasitako argitalpen-lanari jarraituz, Gonzalo Oyarzún liburuzain txiletarraren hausnarketak biltzen dituen *La biblioteca imaginada, jardín para sembrar comunidades* liburua euskaratu eta argitaratu dugu. Liburutegi publikoek zerbitzatzen dituzten komunitateen garapen sozial, ekonomiko eta kulturean duten eginkizunari buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu egileak.

ALDEE bat dator liburu honen ardatz eta diskurtsoarekin. Horregatik uste du apustu garrantzitsua dela liburu hau euskaraz argitaratzea. Izan ere, Gonzalo Oyarzúnnek deskribatzen duen liburutegi imajinatu hori bere komunitatearekin konprometituta dago eta funtsezko eragilea da bere eraldaketa-prozesuak azkar aldatzen diren ingurunean. Oyarzúnnek hitzetan, «espazio demo-

kratikoa» da, eta, aldi berean, «demokrazia sortzeko, eztabaidatzeko eta aniztasunean eta tolerantzian elkartzeko gunea». Liburutegia beti izango da giza eskubideen lorategi bat, non ideiak eta pentsamenduak askatasunez landu eta loratzen diren.

Jatorrizko bertsoia gazteleraz argitaratu zen, baina dagoeneko katalanera itzuli eta argitaratu da (*La biblioteca imaginada. Jardí per sembrar comunitats*) eta euskarazko edizioa da esku artean duzun hau: ***Liburutegi imajinatua: komunitatea ereiteko lorategia.***

Rosetta Itzulpen Zerbitzua arduratu da itzulpenaz. Azala eta liburu-puntua Maite Gurrutxaga ilustratzaileak egin ditu eta Iban Zaldúa idazleak hitzaurrea sortu du Gonzalo Oyarzúnen liburuaren euskarazko bertsoarentzat.

ALDEEko Zuzendaritza Batzordea

BIBLIOTEKARA

-ipuin itxurako hitzaurre bat-

IBAN ZALDUA

Gizaki bihurtzen zaituena ez da liburu bat irakurtzea, biblioteka bat baizik. Eta ez da zaila, denbora besterik ez duzu behar.

Georges Didi-Huberman

ekoizpen Unitatearen kupulei azken begiratu bat eman diet atzera: lasai dago dena. Haizeak suabe jotzen du gaur, Batzarren Aretoaren alboko anemometroaren mugimendu mantso eta zalantzatiak salatzen duen bezala. Ondoko soroetan ez dago joan-etorri nabarmenik: galtzu garaiko lanak igarota, ez da jende premia askorik egongo ereintzara arte. Urrun, traktore elektriko bakar bat dakusat, isilka, sail baten goldaketa aurrelanean: lurraren gainean flotatzen doala ematen du, udazken goiz honetako argi distiratsuegiaren islapean. Berehala gogoratu naiz: B-9 lur-saila izan behar du, hazkuntza goiztiarreko soiaren aldaera bat probatzeko prestatzen ari garena. Amane gaixoari egokitu zitzaion ataza, azkeneko zozketan. Zenbat kexu eta marmar: berak, nik bezala, egunotan maizago banatzen diren baimenetako bat probestu nahi zuen Bibliotekara hurbiltzeko, laborantza-lanetarako txanda gutxiago dagonean gertatu ohi den bezala. Hari tokatu behar, ordea.

Izan ere, pixka bat harritu nau bidean bakarka abiatu izanak, nirekin batera jende gehixeago joango zela uste bainuen. Agian geroxeago aterako dira, baina nik nahia-go dut goiz iritsi, eguzkia gogor jotzen hasi aurretik. Egia da Giramash eta Maren eta haien kuadrillakoek komentatu zutela Putzu Handira bainu bat hartzera joateko plana zeukatela eginda, ur-maila seigarren kotatik gora egonda berriro ere posible baita, azkenik, baina, hala ere, lagun gehiago espero nituen kamiorako. Tira, horregatik noa kargatuta, eta Topolino hartu behar izan dut, errobera txikiko gurdia haren uhaleriarra uztartu ondoren, gaur hara noala jakinda, atzo urliak, sandiak eta berendiak itzultzeko eman zizkidaten liburu guztiak eramán ahal izateko. Agian ez dira hainbeste ere, baina bidea luzeegia da, edonola ere, esku-orgarekin egiteko, eta zaldurdeari komeni zaio, noizean behin, ariketa pixka bat egitea. Ariketa egitea, eta txeratsuegi tratatzen duten Ekoizpen Unitateko umeengandik urruntzea, orobat, gaizki ohitzen dutelako. Eta datorren hilabetetik aurrera, gainontzeko azienda hibrido guztiak bezala, gogorrago egin beharko duelako lan: traktore eta aitzur elektrikoak ez dira, orduan, nahikoa izango. Izan ere, zurrunga alai bat bota du martxan jarri garenean, eta beste irrintzitxo bat Ukuilu Nagusiaren ondotik pasatzean, zeinari, barrutik, karrankek eta murrusek erantzun baitiote. Ez dut uhaletik tiratu behar ere: Topolino pozik egokitu da nire urratsen erritmora, gurditxo atzetik daramala, jauzi txikiak eginez bideko zulo eta harritxoek gainetik pasatzean. Simaur usaina atzera uztearekin bat Ekoizpen Unitatearen mugak zeharkatu

ditugula ulertu dut, edo dugu, Topolino ere horretaz jabetu dela esango bainuke.

Ondoren, eguzki-zelulen eremua alde batera utzi, eta lautadako bidetik abiatu gara Hirirantz. Ez da biderik zuzena, eta ez dut horren maiz hartzen, baina distantzia ez da berez, askoz ere luzeagoa, eta batzuetan, oraingoan bezala, patxadaz egitea gustatzen zait, paisaiaren xehetasunei ondo erreparatuz. Gaur, adibidez, ohartu naiz Krater Handiaren ertzetan, duela gutxira arte erabat soilduta zegoena, zuhaixka adabegitsu batzuk hasi direla hazten; distantzia honetatik ezin ditut argi bereizi, baina formagatik, eta handitze abiaduragatik –pasatu nintzen aurrekoan, behintzat, ez nituen sumatu ere egin–, errezil-kiwiak direla esango nuke: auskalo nola iritsiko ziren haziak horraino. Geiger kontagailuekin neurketa zehatzak egin beharko badira ere, Biltzaileen brigadentzako lan-leku aproposa bihur daiteke hemendik bi edo hiru urtera: hurrengo Batzarrean aipatu beharko nuke, ea gogoratzen naizen. Eta pentsatzea txikiak ginenean ez zigutela inolaz ere uzten eremu horretara jolastera joaten, eta hesituta egon zela luzaro...

Hirira hurbiltzean Hondamendi Handiaren seinaleak ugariagoak bihurtzen dira: landarediak hartutako eraikin bloke erdi-eraitsiak, arrakala berdez eta arrez zartatutako asfalto-zatiak, adobezko txabola bio-energetikoak, gelditzen diren Hiritar urrien bizilekuak, eta, noizean behin, horien atarietan, aulki tolesgarrietan eserita, auzokideak, goizaldeko freskoaz gozatzen, eta Topolino eta biok eskuarekin agurtzen gaituztenak, adeitsu.

Eta, han-hemenka, Barrutiko Bibliotekaren eraikinak, noski, erraz bereizten direnak gainontzeko hondakinetatik, teilatuetako eguzki-plaken distiragatik ez ezik, berrituta eta landare igokariz libre dauden ia bakarrak direlako. Batzuetan eraikin ikusgarriak aukeratu dituzte Barrutiko Bibliotekaren sailak kokatzeko, eta modu egokian birgaitu, baina beste batzuetan eraikin ez bereziki ederrak, baina arkitektonikoki eraginkorrak hartu zituzten, eskuinean uzten ari naizen Landareen eta Hazien Bibliotekarena bezalakoak, ikuspegi artistikotik agian ez duena askorik balio –antzinako eliza brutalista ez bereziki eder batetik abiatuta berreraiki zen–, baina esleitu zitzaion funtzio berrirako biziki egokia, Arkitektura Aholkularien iritziz. Birziklatzea izaki eraikin administratiboen eraikuntzarako –eta bestelako ekin-tza eta prozesu kolektiboen garapenerako– gidalerro nagusia, gutxitan altxatu dira planta berriko eraikinak; gure Hirian, nik dakidala, ez da halakoetako bat ere eraiki, esate baterako, baina badakit beste Barruti batzuetako Hirietan badaudela adibideak.

Teknologia eta Tresnen Biblioteka, bere kupula ikusgarriarekin, ezkerrera utzi dut halaber, nire helburua Hiria zenaren ia erdian kokatutako Liburuen Biblioteka delako, hots, betidanik –tira, aspaldidanik: Hondamendi Handiaren aurretik bederen– funtzio hori izan zuen eraikin berean jarraitzen duena, nahiz eta, egun, parke zabal batez inguratuta dagoen, eta ez bestelako eraikinez, iraganean bezala. Hor amaitu ondoren, edo nola ere, eta denbora soberan badut, agian Jantzien eta

Ehunen Bibliotekatik pasatuko naiz, gogoa baitaukat ikusteko ea beroki eta gona berriak adabatu dituzten, bizpahiru hartzeko maileguan, ahal dela.

Hirugarren Iraultza Neoliberalaren ondoren bibliotekak izan ziren –liburuen bibliotekak, uler bedi– zutik mantendu ziren publikotasunaren ordezkari bakarrak, hainbeste ezen ikur bihurtu baitziren herrialde gehienetan. Gainontzeko alorrak ekinbide pribatuak bereganatu zituen, aldez edo moldez: hezkuntza, osasuna, lurralde plangintza, posta, are polizia eta armada ere. Bibliotekek eutsi zioten debaldeko zerbitzu publikoaren esparru ia bakar gisa, eta, horren ondorioz, gero eta funtzio gehiago bereganatu zituzten, literaturaren eta, oro har, kulturaren gordailu eta zabaltzaile izateaz gain: komunitateen erdigune bilakatu ziren, kasu batzuetan. Elkargune, eztabaidagune eta babesgune, merkatutik kanpoko truke eta dohaintza txikien lekuko, liburuen eta bestelako ikus-entzunezko materialen mailegu zerbitzu izaten jarraitzeaz gain.

Horregatik ez zen harritzekoa izan Bibliotekak bilakatzea, Hondamendi Handiaren ostean, berregituraketaren ardatz administratibo nagusiak: Distrituak eratzten joan zirelarik, beren baitan Ekoizpen Unitateak hartuta, kasik naturalizat hartu zen hiri txikietan ezarri koordinazio-organoen bizkar-hezurra Bibliotekek osatzea, eta haien funtzioak zabaltzea. Hori bai, guztien buru, betiere, Liburutegiak, Liburuen Bibliotekak aritu ziren.

Paperezko liburuek eta, oro har, material analogikoek protagonismo berria hartu zutelako argindarra ordu jakin batzuetan baino ekoiztu eta banatu ezin zen garai berrietan. Internet sarearen tamaina eta irisgarritasuna larriki mugatu zuten Hondamendi Handiaren osteko gertakariak, eta, gaur egun, oraindik ere, konexioa ez da erabat berreskuratu, Sareko eskualde zabalek itzalean jarraitzen dute, agian betiko, zerbitzari batzuen edo besteen behin behineko berraktibazio-saioen mende. Gaurkoan, adibidez, Topolino Liburuen Bibliotekaren kanpoaldeko amarralekuan lotu bitartean, atariko afiak informatu dit Interneterako konexioak, ordenagailu aretoan, 12:00etatik 15:30era luzatuko direla: bizkor ibili beharko dut, txanda eskatu eta leku bat eskuratze-ko, zer edo zer bilatu nahi baitut, hain zuzen ere, itzuliko dudan liburuetako baten egilearen inguruan. Liburua zaldurdeak bultzatu duen gurditxotik atera dut, nik eta nire Unitatekideek maileguan hartutako beste guztiekin batera, eta, hiru bidaietan, itzuleren erakusmahaira eraman ditut; lau izango ziren baldin eta Claudek, harrerako txanda daukan Bibliotekariak, nirekin irten eta hirugarrenean lagundu izan ez balit.

Zorionez, ez dut gehiegi itxaron behar izan ordenagailu bat lortu ahal izateko, eta berehala egin dut kontsulta, Wikipediako orrialde erdira –une batetik aurrera informazioa galtzen zelako– eta auskalo zein zerbitzaritan iraun duten zientzia-fikzio fandom-eko orrialde zaharruno batzuetara mugatu behar izan dudana, baina nahikoak izan direnak nire susmoak baztertze-ko: Walter

M. Miller Jr, irakurri berri dudan eleberriaren egilea, ez zen, nik pentsatu bezala, bibliotekaria izan sekula. Izan ere, ingeniaria izan zen, eta, II. Mundu Gerran, hegazkin-laria, zientzia-fikziozko ipuin batzuk eta bi eleberri –bat amaitu gabea– idazteaz gain, noski. Lehenengo nobela da nik irakurri dudana, *Leibowitz-i kantika*, lan bat zeinetan bibliotekek protagonismo handia baitute, monasterio moduko liburutegietan babesten baita kulturatik eta ezagutza zientifikotik geratzen den apurra, sobietarren eta estatubatuarren arteko balizko III. Mundu Gerraren ondoren, nolabaiteko feudalismo batera itzulitako mundu post-apokaliptiko baten erdian.

Irudia, bibliotekekin zer ikusia duen guztia bezala, gustatu zitzaidan, egun bizi dugun egoerarekin inolako antzik ez badu ere –gure bibliotekak ez dira, ezta gutxiago ere, eremu itxi eta gotortuak, Miller Jr.-ren nobelan bezala–. Eta, bide batez, ezagutza defendatzen duten monjeen ahalegin eta ardura miresgarriak, epe luzera, ondorio tragikoak baditu ere, ondare hori guztia antzinako teknologia nuklearra berreraikitzeke oinarria izango delako, gerra berri baten prestakuntzarako eta historia gurpil zoro baten moduan errepikatzeke alegia. Zer ikusirik ez, zinez, gaurko gure munduarekin.

Edonola ere, egileari buruz, zeinaz informaziorik ez baitzuen ematen maileguan hartu nuen aleak –Bibliotekan bertan birkoadernatu behar izan zutelako, liburu zahar askorekin egin behar den bezala–, ondorio okerrak ateratzera eraman ninduen istorioak, noizbait bi-

biblioteca bateko langilea izan zela pentsatzera heldu nintzelako. Eta ez, Interneteko kontsulta laburrak erakutsi berri didanez. Nahiz eta horrek ez duen esan nahi haren bizitza eta liburutegiak sekula gurutzatu ez zirenik: Walter M. Miller Jr. izan zen, bonbaketari estatubatuar baten tripulazioko kide gisa, naziak hartutako Monte Cassinoko abadiaren kontrako operazio gogorrean parte hartu zutenetako bat, 1943. urtean. Eta ekintza horrek, monasterioa eta bere altxor guztiak, tartean biblioteca itzel bat, errotik suntsitu zuenak, aztarna handia utzi zuen Miller Jr. artean gaztean, hainbeste ezen trauma osteko estresa pairatu baitzuen handik aurrera, bizitza osoan zehar, eta, azkenean, bere buruaz beste egin baitzuen, bigarren nobela, *Leibowitz-i kantikaren jarraipena*, amaitu gabe utzi zuela.

Egia da nire azken aldiko irakurketa askok, zuzenean edo zeharka, bibliotekekin dutela zer ikusia. Oraintsu ohartu naiz, azken aste hauetan etxean izan ditudanak maileguen atalean itzultzen ari naizelarik: Susan Orlean-en *La biblioteca en llamas*, Umberto Eco-ren *Arrosaren izena*, Angel Erroren *Hortum in bibliotheca: liburutegiei odak*, Alberto Manguel-en *Mientras embalo mi biblioteca...* Are Bibliotekariari pasatu diodan hondarrekoan, W.G. Sebald-en *Austerlitz*en, gehien hunkitu nauen kontuetako bat Pariseko bi biblioteca nazionalen arteko konparaketa izan da, Richelieu kaleko zaharraren eta Tolbiac aldeko –orduan– berriaren artekoa, bibliotekek zer ez luketen izan behar aski ondo erakusten dutelako azkenari buruzko Sebalden iruzkinek.

Zorionez, gure Bibliotekak ez dira inondik ere horrelakoak; are gehiago, justu alderantzizko norabidean daudela esango nuke: xumeak dira, irekiak, malguak, ez diote erabiltzaileari oztopo megalomaniakorik ipintzen. Eta, aipatu bezala, mundu berriaren hazia bihurtu ziren, ustekabeak. Egia esan, deseatzten nago Zozketan bibliotekari izateko txanda egokitzeko, eta txanda hori Liburuen Bibliotekan egiteko, ahal dela. Luze jo dezake, agian ez zait sekula suertatuko, baina bihozkada daukat baietz, noizbait bete ahal izango dudala nire ametsa, eta Claude orain dagoen lekuan egongo naizela ni, liburu zaharrak eta berriak maileguan hartzen eta ematen, gomendioak egiten, garai batean erabiltzaile izendapen zatarrak jasotzen zuten Herritarrei laguntzen.

Claude nire grina horren jakitun da, eta horregatik gomendatu dit duela gutxi berreskuratu eta koadernaketa tailerrean atondu duten beste liburu zahar bat, irakurketa aretora eraman berri dutena, Gonzalo Oyarzunen *Liburutegi imajinatua*. Lan horretan daude, dio Claudek, egungo Biblioteketara eraman duten bideen gakoetako ez gutxi. Aitzindari bat, agian ez txikitatik ezagutarazten dizkiguten gure egungo gizarte-antolaketaren *klasikoak* bezain nabarmena, baina bai oso erabilgarria garai bateko biblioteken erronkak zeintzuk ziren ohartzeko.

Eta horixe da egin dudana aurreneko gauza irakurketa aretora igo bezain laster. Berehala topatu dut liburuak. Eta, nire ohiturari jarraiki, hitzaurrea albo batera utzita –hitzaurreek ez baitiote, maizenik, ekarpen esangu-

raturik egiten liburuaren benetako edukian murgildu nahi duen irakurleari-, eta hortxe hasi naiz, orrialde pasan, garai bateko Kenyako eta Peruko eta Brasilgo eta Danimarkako eta Kolonbiako liburutegien esperientzien eta ekintzen inguruan irakurtzen, eta iraganari eta herrialde -garai batean ere- ustez azpigaratuei buruz neuzkan aurreiritzi batzuk gaintik kentzen, eta antzinako bibliotekari batzuen konpromisoa miresten, behetik, Liburuen Bibliotekako ataritik, aharrasui baten hotsa entzun dudala iruditu, eta ohartu naizen arte Topolino gose egongo dela, edo egarri, edo gose eta egarri, eta, edonola ere, badudala unea hemendik ipurdia altxatzeko, liburu-sorta berri bat aukeratzeko eta maileguan hartzeko, eta baita Unitatekideek egin dizkidaten enkar-gu guztiak ere, eta, berandu baino lehenago, Ekoizpen Unitatera itzultzen hasteko.

Liburutegi imajinatua ere nirekin hartuko dut, zer esanik ez.

LIBURU HONI BURUZ

Liburu honek Gonzalo Oyarzún liburuzain txiletarren zortzi testu biltzen ditu, gaur egun liburutegi publikoek gure bizitzetako zenbait alderditan duten eginkizunaz hausnarrarazi nahi digutenak. Nolanahi ere, ez dira azalpenezko testu zurrinak, egileak proposatzen duen liburutegi imajinatua amestera eta desiratzera garamatzaten orrialde inspiratzaileak baizik.

Hasteko, liburutegiek komunitatearekin eta garapen sozial, ekonomiko nahiz kulturalarekin duten loturak azaltzen dizkigu Oyarzúnek, eta ondoren, gaur egun Latinoamerikan loratzen ari diren bost esperientzia aurkezten dizkigu. Azalpen horien bidez, berretsi egiten du liburutegiek paradigma aldaketa bat behar dutela, pertsonak jartzeko beren ahaleginen erdigunean. Izan ere, liburutegiak haiei erantzun behar die, eta haiei eman behar die zerbaiten parte sentiaraziko dituen espazio bat, eskubideak aitortuko dizkien espazio demokratiko bat, parekoekin eztabaidatzeko eta hitz egiteko aukera eskainiko diena, baita askatasun osoz sortzekoa ere.

Baina egilea ez zaigu ari utopia edo amets baten eraikuntzaz. Liburutegi hori jada eraikitzen ari dira munduko txoko askotan: herrialde garatueta zein Afrikako komunitate txikienetan, Europako iparraldean nahiz Txileko eskualde australenetan. Gure herrialdean ere badira liburutegi imajinatuak. Esperientzia horiek aztertzea eta izan dezaketen inpaktua ikustea, hori da egin beharrekoa, kasu bakanak izan beharrean orokortuak izan daitezten lortzeko. Arazoak eta gabeziak aukera bihurtzeko; adostasunik ez dagoen lekuetan komunitateak modu ireki, doako, inklusibo eta beroan konektatuko dituzten zubiak ereiteko.

Egileak ohartarazten digunez, aldaketa hori ez da automatikoki gertatuko, eta are gutxiago liburutegiak ez badira hurbiltzen beren komunitateetara; soilik erabiltzailtzat edo onuraduntzat jotzen badituzte, eta ez eraldaketarako eragile aktibotzat. Ez, «liburutegiek egunerokotasunean murgilduta egon behar dute, komunitatearen bihotzean taupadaka».

Hortaz, liburutegi imajinatua Aleph moduko bat da, eta bertan guztiok sartzen gara, denbora guztiek bat egingen dute eta ideiak hazten dira. Bertan egoteko gogoa piztuko digun lorategi bat da.

LIBURUTEGIA, ASKATASUNA ETA ERRESISTENTZIA

Hiri batean, gozamena ez digute eragiten zazpi edo hirurogeita zazpi mirariek, hiriak gure galdera bati ematen dion erantzunak baizik.

Italo Calvino

Liburutegiak aldatu egin dira, eta asko, gainera. Agian, esan beharko litzateke etengabe aldatzen ari direla, etengabe eraldatzen, inguruan duten gizartearen moduan. Liburutegiaren gaur egungo kontzeptua, informazioa eta askotariko zerbitzuak eskaintzen dituen espazio ireki eta irisgarriarena, kontzeptu berri samarra da.

El nombre de la rosa lanean, Umberto Eco (2016) aldi berean sakratua eta beldurgarria den leku gisa deskribatzen du liburutegia, eta gutxi batzuk baino ezin dira sartu bertan.

Liburuzainak bakarrik daki liburuen labirintoan barenna mugitzen, eta berak bakarrik du horretarako baimena; berak bakarrik daki non aurkitu eta non gorde liburuak; bera da liburuen zaintzaren ardura-dun bakarra (...) Liburuzainak erabakitzen du nola eta noiz eman liburu bat eskatzen duenari, eta kome-ni den ala ez.

Iruditeria primarioan, jakintzaren gordailu haiek gutxi batzuen ondarea ziren. Gaur zuekin batera imajinatu nahi dugunetik ezin urrunago zeuden. Baina, hala ere, urruneko ikuspegi horretan bada ulertu beharreko ideia bat, orainerako eta etorkizunerako balio duena: ezagutzak, kulturak, eztabaidak eta informazioak ahalmen eraldatzaile, argigarri eta are iraultzaile izugarria dutelako ideia. Ezaugarri horrek, kalitate horrek, garatzen ari garen zereginaren erdigunean jarraitzen du, baina, oraingoan, bultzada eman nahi diogu motor horri.

Gero eta ohikoagoa da liburutegi publikoak espazio komunitario gisa, negozio zentro gisa, arte galeria gisa, trebakuntza zentro gisa eta ideiak eztabaidatzeko foro gisa erabiltzea. Ondorioz, horien eginkizuna dibertsifikatu egiten da, eta esanahia zabaldu, eta jendeak balio handiago ematen die. Eskoletako liburutegiak espazio dinamikoak dira gaur egun; zeregin pedagogikoetarako lekuak izateaz gain, leku konprometituak dira hezkuntza komunitateko kideekin eta familiarekin, horietako asko inoiz eskolan izan ez badira ere. Gaur egun, gero eta gehiago, liburutegi nazionalak gizarte etxe gisa planteatzen dituzte, eta bizitza kultural, sozial, politiko eta ekonomikoa sormenez hedatzen da bertako korridoreetan barrena, eta ondarezko espazio fisiko tradizionaletatik haratago irteten da, irakurle bila. Unibertsitateetako liburutegiak komunitateari irekitako espazio publiko bihurtzen ari dira, eta eduki akademikoak ez ezik, beste batzuk ere izaten dituzte, askotari-koak, inguruan dutenari erantzuten diotenak.

Liburutegi mota horiek zehazten zituzten mugak lausoagoak dira orain, iragazkorragoak, guztiak ari baitira jartzen beren zereginaren erdigunean jomuga berbera: pertsonak.

Gizartea ere aldatu da. Gaur egun, bizitza komunitarioak beste kode batzuk ditu. Demokrazia ingurune politiko formaletatik kanpo gauzatzen da maizago. Bizitza soziala demokratikoki eratzen da zenbait eremutan. Hala, gizarte garaikideko sektore zabaletan elkarrekin erlazionatzeko erabiltzen ditugun moduek oinarritzat dituzte ekitatea, berdintasuna eta irisgarritasuna, beste balio batzuen artean. Hezkuntza eta kultura ondarea eskurago dituen gizartearen jarrera aldaketak tentsio handia eragiten du beren eskubideak aldarrikatzen dituzten herritarren eta eskaera horiei erantzuteko gabeziak dituen sistemaren artean. Tentsio hori konpondu bitartean, liburutegiek beren gain hartu dute herritarrei egunero eskubideak baliatzen laguntzen dieten espazio demokratikoak izateko funtzioa. Irekitasun kontzeptu horren baitan, inolako mugarik gabeko lekutzat hartuta, liburutegia askatasun espazio bat da. Aipatzen ari garen liburutegiak —liburutegi imajinatuak, une honean zenbait kontinentetan eraikitzen ari denak— gizarte kohesioa errazten du, eta komunitate bateko kideen gaitasunak hobetzen ditu, gaitasun horien artean bizitza publikoan parte hartzekoa nabarmenduta. Hori bereziki garrantzitsua da, gizarteko bizitza demokratikoaren kalitatea hobetzen duen erakundea dela esan nahi du

eta. Liburutegi bat aukera bat da: gizarte inklusiboagoa eta justuagoa izateko aukera; egoera ekonomiko hobea lortzeko eta tokiko bizitza politikoan neurri handiagoan parte hartzeko aukera, bazterketa eta atzerapen handieneko egoeran daudenentzat, bereziki.

Gaur egun, pertsonok erlazionatzeko eta garatzeko erabiltzen ditugun espazio gehienak pribatuak edo komertzialak dira; testuinguru horretan, liburutegia aisialdi kulturalerako espazio publiko eta doako bat da, komunitate bateko herritarrei giza alderdiaren ezaugarri ugariak garatzeko aukera ematen dien leku bat. Eta liburutegiek ohartu behar dute eginkizun horretaz, sakonduz joango baita, denborak aurrera egin ahala, eta gero eta modu erabakigarriagoan hedatuko baita. Espazio publikoak eta komunitarioak eskubide osoz herritar batzuek bakarrik erabil ditzaketen espazio komertziale-tara edo espazio digitaletara mugatuz doazen heinean, liburutegia erresistentziarako espazioa izango da, are iraultzarakoa ere, eta bertan irakinaldian jarraituko dute bizitza komunitarioak, berdinen arteko topaketak, sorkuntzak, eztabaidak eta pentsamenduak.

Alabaina, eginkizun hori ez da automatikoki lortuko, eta liburutegiek beren komunitateekin elkartuta lan egin behar dute estatus hori lortzeko. Oso ongi ezagutu behar dituzte komunitateak, informazio premiak edo zerbitzu eskaera espezifikokoak ez ezik, bizitzako nahiak eta garapen indibidual zein kolektiboko xedeak ere ase

behar baitizkiete; labur esanda, liburutegiek egunerokotasunean murgilduta egon behar dute, komunitatearen bihotzean taupadaka.

Liburu honek liburutegien eraldaketaren alderdi batzuk jorratu nahi ditu; horietako asko funtsezkoak dira, nire iritziz. Era berean, azaldu nahi du nola bihurtu den liburutegia aldaketarako eragile, bai ingurune hiritar-reen, bai landatar-reen. Ingurune askotan, liburutegia da espazio publiko eta kultural bakarra, komunitateari munduarekin konektatzeko, trebatzeko, berritzeko eta sortzeko aukera ematen dion lekua. Planetako eskualde zabaletan, liburutegia harrera espazioa da etorkinentzat, etxegabeentzat edo gaitasun desberdinak dituztenentzat. Bertan, denak tratatzen dituzte pareko gisa, denak dira subjektu eskubidedunak, eta eskuragarri dituzte kultura, jarduerak, ziberespazioa eta irakurketa, jakina.

Gaur egun, liburutegi askok erakutsi dute eraldaketa egingarriak direla, eta ezinbesteko bihurtu dira beren komunitateentzat. Liburutegi horietan, lorategi iraunkor batean bezala loratzen da bizitza, eta milaka espezie eta barietate elkarrekin bizi dira, elkar elikatuz, guztien gozamenerako. Izan ere, liburutegi bateko zerbitzuek komunitateko kideek lortu nahi duten berbera dute helburutzat; hots, bertan bizi diren pertsonen bizi kalitatea hobetzea.

Kenya aniztasun handiko herrialdea da: ia berrogeita hamar milioi biztanle ditu; berrogeita bi talde etniko bizi dira bertan, eta hirurogeita zortzi hizkuntza inguru hitz egiten dira. Hiriburua, Nairobi, erdialdeko Afrikako Manhattantzat dute, garapen ekonomikoa dela eta. Garapen bidean den herrialde bateko hiri handi orotan gertatzen den moduan, biztanleen zati handi bat pobrezian eta muturreko pobrezian bizi da. Nairobin bertan dago Kibera, munduko giza egonleku irregular handiena, non milioi eta erdi pertsona inguru muturreko baldintzetan bizi diren, edateko urik gabe, kale formalik gabe, eta gela bakoitzean batez beste bost pertsona pilatuta.

Kiberan zazpi tribu aurkari bizi dira. Inoiz ez dira eseriko mahai berean; ez diote elkarri bisitarik egingo, eta seme-alabak ez dira lagunak izango eskolan.

Kiberaren erdian liburutegi bat dago; ezohiko espazioa da. Energia elektrikoa eta Interneta ditu, baita liburuak, altzari zainduak eta ekipamendu teknologiko bikaina ere. Kiberako biztanle guztiek zaintzen dute liburutegia, badakitelako abandonatutako bizitoki horretan itxaropenerako espazio bakarra dela: bertan, urrun dauden senideekin hitz egin dezakete, baita lana bilatu ere, edo elkarriketa bat prestatu eta curriculuma idatzi. Bertan, etxean sekula izango ez dituzten liburuak eta teknologiak erabil ditzakete neska-mutilek.

Mary Kinyanjui liburutegiko buruak azaltzen duenez, liburutegia salbuespenezko espazio bat da, baina ez soilik liburuengatik edo Interneterako sarbidea duten ordenagailuengatik. Kiberako Liburutegi Komunitarioa ezohikoa da, egunero sartzen direlako bertara haurrak eta helduak, mahaietan eseri eta eskura dituzten zerbitzuak partekatzen. Hori ez litzateke gertatuko hiriko, herrialdeko edo kontinenteko beste inongo lekutan: liburutegi horretan, espazio ireki eta seguru horretan, aurkariak diren zazpi tributako kideak mahai berean eser daitezke, eta ezagutzak nahiz irribarreak parteka ditzakete. Espazio ohoratu, baloratu eta babestua da, baina Ekok adierazitako zentzuaren oso bestelako zentzu batean.

Liburutegi bat ez da neurtzen ez eraikinaren metro karratu kopuruaren arabera, ez zerbitzu kopuruaren arabera, ezta erabiltzaile edo mailegu kopuruaren arabera ere, edo jasotako aitorpen publikoen arabera; bere komunitatearen galdera bati ematen dion erantzunaren arabera neurtzen da.

LIBURUTEGIA ESPAZIO PUBLIKOAN

Espazio publikoak bertan bizi diren pertsonak definitzen dituzte: haien jardunek eta ohiturek, gauzatzen dituzten jarduerak eta halako espazioei ematen dizkieten funtzio sozial eta kulturalak. Jürgen Habermas filosofo eta soziologo alemanarentzat, iritzi publikoa eratzten den bizitza sozialeko eremua da espazio publikoa. Normalean, eremu hori pertsona ororen eskura dago. Neurri batean, espazio publikoa pertsonen arteko elkarrizketatik abiatuta eratuko litzateke, bizitza pribatua atzean utzi, eta arreta gauza komunetan jartzen dutenean, hau da, gauza publikoetan. Hala, bizitza publikoa herri txiki bateko, hiri bateko, eskualde bateko edo herrialde bateko espazio publikoetan sortzen eta berregiten da. Ildo horretan, espazio publiko horien arrakastaren mende dago kultura, hein handi batean. Ongi diseinatutako espazio publiko inklusiboak behar dira, komunitate bateko biztanleen askotariko beharrei erantzungo dietenak, interakzio sozial esanguratsu eta inklusiboa sustatzeko. Gaur egun informazioa oso erraz transmititzen dela kontuan hartuta, norbanakoen eta komunitatearen arteko harremanetan jada ez da hain erabakigarria nor-

banako horien eta espazio publikoen kokapena, hiria gero eta deszentralizatuago eta zatikatuago dagoelako. Eragile pribatuak rol esanguratsua hartzen ari dira, topalekuen (merkataritza guneak, hiriko espazio pribatuak) edo espazio birtualen administrazioaren bidez. Baina interes pribatuek sarri aurka egiten diete komunitatearen interesei, erakunde publikoek ordezkatzeko dituztenei, eta benetako mehatxua dira, espazio publikoak bizitza garaikidean bete behar lukeen eginkizunari dagokionez. Hala bada, Hannah Arendten hitzetan, «jabetza pribatuarekiko interes pribatua interes publiko bihurtzen da» eta, ondorioz, espazio eta ondasun publikoak dira «geratzen den interes komun bakarra» (2009, 146. or.).

IFLA/UNESCOREN Liburutegi publikoaren aldeko manifestua dokumentuaren arabera, liburutegi publikoa funtsezko elementua da komunitate batean hezkuntza eta ezagutza bermatzeko, komunitatea bere ingurune politiko eta ekonomikoan indibidualki nahiz kolektiboki garatzeko tresna ere izateaz gain:

[liburutegietako] zerbitzuek fisikoki irisgarriak izan behar dute komunitateko kide guztientzat. Horretarako, liburutegien eraikinek kokapen egokia izan behar dute, irakurtzeko eta ikasteko baldintza onak eskaini behar dituzte, baita teknologia egokiak ere, eta erabiltzaileentzat aproposa den ordutegia (UNESCO, 1994, 15. parag.).

Egungo testuinguruan, non espazio publikoko bizitza gero eta gehiago gertatzen den errentagarritasun ahalik eta handiena lortzeko diseinatu diren eta administrazio pribatua duten espazioetan, liburutegiak komunitate bateko erakunde garrantzitsuenetako bat dira; izan ere, bertan islatuta daude gizartea eta haren nahiak, beharrak zein balioak, inolako bazterketarik egin gabe, eta oinarritzeko lekuak dira ezagutza transferitzeko.

Liburutegi garaikideak —edozein liburutegi motak— pertsonak jartzen ditu erdigunean, haietako bakoitzari behar dituen zerbitzuak malgutasunez eta moldakortasunez emateko konpromisoa. Horrek berekin dakar komunitate osoaren premia sakonenak ulertzea eta horiekiko konpromisoa hartzea, eta komunitate horrek izan nahi duen bizitzaren ikuspegia eskaintzea. Horretarako, ezinbestekoa da sistematikoki entzun eta ebaluatzea, baita emaitzak dokumentatzea ere. Entzutea pertsonetikiko eta komunitatearekiko konpromisoa adieraztea da, eta malgutasuna izan behar da, feedback hori kontuan hartzeko programazio bat sortzean edo espazioak diseinatzean.

Liburutegi mota guztietako espazioak aldatu dira, materialei baino arreta handiagoa eskaintzen zaielako pertsoneri. Hegoaldeko Gales Berrian (Australia) liburutegien eraikinak planifikatzeko gidan (*People places: A guide for public library buildings in New South Wales*), liburuek espazioaren % 30 bakarrik hartzea gomenda-

tzen da, eta gainerako % 70a komunitatearen bestelako beharrei erantzuteko erabiltzea. Eraldaketa horrek badu zentzua, kontuan hartzen badugu iraganean informazioa urria izaten zela eta, horrenbestez, logikoa zela jendea material ugaziz hornitzea. Orain informazioa nonahi dago; informazio lehia handia denez, liburutegi baten hobia, forma fisikoan behintzat, gero eta bideratuago dago komunitatearen interesetarako baliagarria izango den espazio bat eskaintzera. Eta, horretarako, liburutegiek inoiz baino beharrezkoagoa dute komunitateko ki-deak ezagutzea, haien beharretara egokitutako espazio publikoa sortzeko.

Espazio publikoa iritzi publikoa eratzen den eremua dela planteatu zuen Habermasek, eta esfera publiko horren oinarria komunikazioa dela. Liburutegi baten espazio ongi diseinatu eta bertako zerbitzuak aukera ona dira iritzi publikoa eratzeko eta komunikazioa oinarritzat duen leku pribilegiatu bat sortu eta sustatzeko.

LIBURUTEGIA GIZARTE GARAIKIDEAN

Gaur egun, komunitate askotan jarduera kulturalak garatzeko guneak dira liburutegiak, baita herritarren bizitza sozial, ekonomiko eta politikoaren zati handi baten agertokia ere. Hiri gehienetan, bereziki hirigune nagusietatik urrun dauden hiri txikietan, liburutegia da herritarrek erabilgarri duten espazio kultural bakarra, eta beste kasu askotan, komunitateek partekatzen duten kalitatezko eta doako espazio publiko bakanetakoa da. Zenbaitetan, liburutegi publikoek oso eredu arkitektoniko onak izaten dituzte, eta haien inguruan identitate bat eraikitzen laguntzen diete komunitateei; herritarrek zerbaiten parte direla sentitzeko aukera izaten dute. Il-do horretan, liburutegi baten eraikinak inguruan duen komunitatearen identitatea eta memoria islatu behar lituzke, baita etorkizuna ere.

Gaur egun, munduko hiri askotan, profil altuko arkitektoak bilatu dituzte, liburutegi publikoak hiriko helmuga interesgarri bihurtu nahian; turistak erakartzea eta, al-

di berean, auzoak suspertzea lortu nahi dute. Zenbait liburutegi berri eta zaharberritutako beste batzuk oinarritzko erakunde publiko bihurtu dira munduko hainbat txokotan; horren adibide dira, besteak beste: Seattle eta Chicagoko liburutegiak, Estatu Batuetan; Virgilio Barco liburutegia, Bogotan, Kolonbian; Santiagoko liburutegia, Txilen; José Vasconcelos liburutegia, Mexikon; Kolonia eta Berlineko liburutegiak, Alemanian; Dokk1 liburutegia, Aarhusen, Danimarkan, edo berriena, Oodi, Helsinki, Finlandian. Hiri horietako askok XIX. mendeko eta XX. mende hasierako kontzeptu batzuk berpiztu nahi izan dituzte, liburutegiak hirietarako eraikin enblematiko gisa eraikitzeko, baina aurrekoek erabilitako kontzeptuen oso bestelakoak erabiliz.

Liburutegien eraikinak malguak dira, eta sektore publiko nahiz pribatuaren garapenetara moldatzen dira; horrek bertako baliabideak eta zerbitzuak beste zerbitzu komunitario batzuekin arrakastaz bateratzea ahalbidetzen du. Erabilera partekatua ez da ohitura berria; XX. mendearen hasieran, Europako eta Estatu Batuetako liburutegi asko leku garrantzitsuetan kokatuta zeuden, hirietako kale nagusietan, merkataritza gunetatik hurbil, udaletxeen ondoan, zerbitzu publikoetatik edo postetxetik hurbil. Gero eta gehiago, liburutegiak beste eraikin publiko batzuetatik hurbil kokatzen dira, hala nola eskoletatik, gizarte zentroetatik edo parkeetatik hurbil, eta barne hartzen dituzte, halaber, erakusketa aretoak, kafetegiak, liburu dendak, oroigarrien dendak edo sal-

tokiak, bisitari gehiago erakartzeko; gainera, batzuetan museoak, kultura etxeak eta are zinemak ere izaten dira eraikin berean. Liburutegiak beste zerbitzu batzuekin bateratuz, hobetu egiten da komunitate baten garapen kulturallean betetzen duten funtzioa.

Liburutegiak oso eginkizun garrantzitsua du komunitatean, hirien eta herritarren garapenerako funtsezkoa baita etxebizitzak, enplegua, zerbitzuak eta espazio publikoak modu orekatuan konbinatzea. Era berean, liburutegiak sozializazioa sustatzeko leku komunitarioa izan behar du. Ikasketarekin eta irakurketarekin lotuta duen berezko eginkizunetik haratago, biltzeko lekua ere izan behar du, komunitateari motibazio desberdinak eta zenbait jarduera aukeran eskainiko dizkion espazio bat. Liburutegiak beste erabilera eta jarduera batzuekin konbinatuz, eraikin irekiak eta erakargarriak diseinatu dira. Konbinazio horiek indartu egin dute liburutegiaren funtzioa doako sarbide publikoa sustatzen duen eta interes publiko zein pribatuen artean lankidetzazko harreman elkarrekikoa sortzen laguntzen duen espazio gisa.

Alistar Black eta Simon Pepper ingelesek egindako ikerketa batek Britainia Handiko liburutegi publikoen eredia aztertzen du XIX. mendetik gaurdaino, eta ondorioztatzen du «liburutegi publikoek beren historian zehar izandako ezein eraldaketa ez d(el)a izan azken urteetan garatu dena baino handiagoa» (2012, 461. or.).

Era berean, Blackek eta Pepperrek aipatzen dute liburutegi publikoa presente egon dela Britainia Handiaren historian zehar, eta bertako hirien aurrerapen soziala eta materiala islatzen dituen leku garrantzitsutzat baloratuta dago.

Laburbilduz, liburutegi publikoa hiriko esparru publiko erakunde garrantzitsua da, topaleku pribilegiatua. Berezkoa du espazio demokratikoa, hezitzailea eta inklusiboa izatea, definizioz.

Liburutegiek komunitatea elkartzen dute, eta sektore babesgabeak zentzu zabalean suspertzen laguntzen dute. Eta askotariko pertsona eta komunitateentzako zentro komunitarioak direnez, horien beharretara egokitzen dira. 1990eko hamarkadara arte, irakurketa gelak ziren liburutegian eskaera handiena zuten zerbitzuak. Hori aldatu egin da, ordea, eta gaur egun ohikoa da Afrikako liburutegi gehienetan, adibidez, garrantzi handiagoa ematea informazioaren eta komunikazioaren teknologiei (IKT), eskainitako beste zerbitzu gehienei baino; ondorioz, teknologia ikasteko zentro bihurtzen dira, bereziki liburutegi txikiak. Adibide horrek oso ongi erakusten du nola moldatu diren liburutegiak beren komunitateen behar ekonomikoetara, eta, horri esker, ekarpen nabarmena egiten diote herrialdeen hazkundeari.

Munduaren arazo nagusietako bat desberdintasuna da. Hezkuntzaren eskuragarritasunean eta kalitatean

dagoen desberdintasunak ondorio ikaragarriak ditu pertsona batek bere egoera ekonomikoa hobetzeko duen ahalmenean. Garapen bidean diren herrialdeetan, non hezkuntza desberdintasuna nabarmenagoa den, liburutegiek aukera dute arrakala hori ixten laguntzeko. Thaiandiako ipar-ekialdeko liburutegi komunitarioei buruzko ikerketa batek erakutsi zuen liburutegi horiek espazio bikaina direla emakumeen hezkuntzarekin eta ahalduntzarekin lotutako arazoei heltzeko. Zenbait programaren bidez, liburutegiek amengana hurbildu ahal izan zuten, eta laguntza eskaini zieten, eta hezkuntza oinarri sendoagoa eman zieten haien seme-alabei.

Azken finean, liburutegiak komunitate bateko kide guztiengana iristen dira, beharretan laguntzera eta bizitza aberastera. Liburutegiak gizarte garaikidean duen funtzioa etengabe aldatzen da, eta erakunde bakoitza desberdina izango da, zer komunitatetan esku hartzen duen.

LIBURUTEGIA ETA KOMUNITATEA

Liburutegia komunitatearentzako gune sinbolikoa ere bada, adina eta estatus sozioekonomikoa gorabehera guztiek erabil dezaketen espazio bat. Era berean, biztanle guztiei espazio komunitario irisgarri bat eskaintzen dien hiri erakunde bakanetakoa da. Ikuspegi horretatik, liburutegi publikoa «ekualizadore demokratikotzat» har daiteke, gizartean loturak eraikitzeko zubitatzat.

Badira zenbait leku, antzeko ideiak dituztenei elkartzeko eta interakziorako aukerak ematen dizkietenak; gaur egun, teknologiei esker, leku horietako asko birtuallak dira, gainera. Baina liburutegiak arlo desberdinetako pertsonak elkartzeko eta komunitate baten barruan gizarte sare berrien garapena eta aniztasuna sustatzeko gaitasuna du. Era berean, komunitate barruan bakartuta eta deskonektatuta dauden pertsonen lagundu diezaieke, eta hobeto sentiaraz ditzake. Liburutegiak aukera pribilegiatua dira komunitate bateko kideek bat egin dezaten, topaketarako eta elkarriketarako foro egonkor eta irisgarri baten bidez. Liburutegi publikoen sarbide demokratikoak komunitateko kideek horren parte edo

jabe direla sentitzea errazten du, eta hori oso garrantzitsua da behar bereziak dituzten taldeentzat; adinekoentzat, etorkinentzat, langabeentzat, emakumeentzat eta haurrentzat, besteak beste. Izan ere, liburutegiko zerbitzu eta baliabide guztiak dituzte eskura, inolako mugarik gabe.

Aarhus hirian (Danimarka) bada liburutegi bat, Dokk1, komunitatearen partaidetza bultzatu duena prozesu osoan, bai diseinu arkitektonikoan, baita altzarien, zerbitzuen eta programen diseinuan ere. Eraikina komunitatearen konpromisoa sustatzeko eraikia dago; bestalde, altzariak liburutegira hurbiltzen den jendearen arteko interakzioa bultzatzen dute, eta horrek elkarrizketak eta ideia trukeak faboratzen ditu adin guztien artean, era askotako gaitasunak dituztenen artean eta maila sozioekonomiko desberdineko pertsonen artean. Herritarrentzako Zerbitzuen sailak eskura jartzen du udal dokumentazioa; Aarhuseko «Smart City» ekimena gauzatzen du, eta hiriko gizarte sektore guztien datuak partekatzen ditu. Funtzio horiek bere gain hartuta, Dokk1 komunitatearen beharren erdian kokatuta dago, eta gobernuarekin batera dihardu. Eta oso beharrezkoa da liburutegiko erabiltzaileei gogoraraztea gobernuaren erakunde honek komunitatearen babesa jaso behar duela, zergen bidez; espazioak etorkizunean ere babesa izango duela bermatzeko lagungarria da hori.

Dokk1 liburutegiaren alderdi deigarrienetako bat «komunitatearen hazkundean» betetzen duen eginkizuna da. Eta hazkundean diogu, literalki; izan ere, hurbileko

ospitale batean haur bat jaiotzen denean, gurasoek botoi bat sakatzen dute, liburutegian kanpai handi batek jo dezan. Ekintza txiki horren bidez, liburutegian denek dakite komunitateak beste kide bat izango duela, eta denek ospatu dezakete. Jaiotzak ospatzeko keinuarekin, Dokk1 liburutegiak hurbiltasunezko ikuspegi afektibotik ere sortu nahi du komunitatea, kide bakoitza osotasun baten parte izan dadin.

Liburutegiak bat egiten du Ray Oldenburg soziologo urbanoaren «hirugarren leku» nozioarekin, komunitatearen eraikuntza gauzatzeko espazio komunitarioa den heinean. Hirugarren lekuak dira kafetegiak, liburu dendak, liburutegi publikoak eta halako beste batzuk, solasaldi bizia ahalbidetzen dutenak, eta herritarrei modu informalean biltzeko eta bizitza sozialaren zentzua ulertzeko espazio bat eskaintzen dietenak. Greziar agora (jatorria: *ἀγορά*, «assemblea», eta *ἀγείρω*, «bildu») jarduera ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalen erdigunea zen antzinaroan; komunitatearen erdigunea izan zen —plaza publikoa—. Zenbait akademikorentzat, liburutegi publikoa hirugarren leku bat da, baina Aabørentzat eta Audunsonentzat, ordea, etxearen, eskolaren edo lantokiaren luzapena da. Horien iritziz, egoera zailtan edo igarokorretan daudenentzat liburutegia bigarren lekua (lantokia edo eskola) alternatiba izan daiteke, lantoki gisa jokatzeko duen espazio bat eskaintzen duelako. Gaur egun eraikitzen diren etxebizitza sozialek elkarbizitzarako espazio gutxi dutela kontuan hartuta, familia

ugarik liburutegia erabiltzen dute etxearen luzapen gisa («lehen lekua»), etxeko lanak egiteko, edo baita familia harremanak garatzeko ere. Ikuspegi horietako edozeinen arabera, komunitateari modu ireki, inklusibo, doako eta kalitatezkoan elkartzeko eta biltzeko aukera ematen dion espazio komunitario bakanetakoa da liburutegi publikoa. Edonola ere, liburutegi publiko garaikidea komunitatearen parte aktiboa da, eta aldaketarako eragilea; tokiko ekonomiarako loturak ere ahalbidetzen ditu, gainera. Baldintza horri esker, mesede egin diezaioke komunitate baten azpiegitura sozialaren garapenari.

Baina liburutegia espazio demokratiko bat izateak — pertsona orok erabil dezakeena, bereizketarik gabe, eta era guztietako materialak eskaintzen dituen, zentsurarik gabe— ez du esan nahi espazio neutrala denik. Liburutegi garaikideak ideia, jarrera eta filosofia askotarikoekin eztabaida onartu eta sustatzen du. Gabriela Mistral poetak dotore azaltzen zuen moduan: «Isiltasuna isiltasun, liburutegiak gerrilla zelai txiki baten antza duela esan daiteke: ideiak gustura aritzen dira borrokan bertan». Nolanahi ere, liburutegia ez da neutrala, eta ez du izan behar. Ezin da neutrala izan, jendeari oinarrizko eskubideak ukatzen bazaizkio; ezin da neutrala izan marjinezioaren, segregazioaren, indarkeriaren eta gehiegikeriaren aurrean. Liburutegi batek ezin ditu ideiak guztiak onartu; bereziki, giza eskubideak urratzeko, estatu kolpeak emateko eta jendea oinazetu eta hiltzeko prest baldin badaude.

2020ko azaroaren 9an, Manuel Merino biltzarkidea buru zuela eta zegozkion eskudantzien barruan, Peruko Errepublikako Kongresuak Martín Vizcarra presidentea kargugabestu zuen. Hurrengo egunean, Merinok berak bere gain hartu zuen errepublikaren presidentetza, Kongresuko presidente gisa. Berehala hasi ziren kargugabetzea salatze mugimendu sozialak. Azaroaren 14ko gauean, egun haietako errepresio polizialaren ondorioz, bi gazte perutar hil ziren; horrez gainera, ehunka zauritu eta atxilotu zituzten, herrialderako justizia eta demokrazia aldarrikatzeagatik. Peruko historia-ren gertaera basati haren biharamunean, Peruko Liburutegi Nazionalak bere logoaren ohiko urdin kolorea kendu, eta beltza erabili zuen sare sozialetan, dolua adierazteko. Aldi berean, komunikatu bat argitaratu zuen, errepresioaren biktimei, zaurituei, hildakoei eta desagertuei elkartasuna adierazteko; halaber, askatasunaren, justiziaren eta berdintasunaren aldeko konpromisoa agertu zuen. Ekintza horrek ez zuen aurrekaririk munduko ezein liburutegi nazionaletan, unean uneko ministroaren mende egon baitaitezke, eta, hortaz, jarduneko gobernuaren mende.

Liburutegiek adi egon behar dute, komunitatearen beharrei erantzuteko; ikusezinenak, baztertuenak eta jazarrienak diren sektoreen beharrei erantzun behar diete, bereziki. Elie Wieselék 1986an Bakearen Nobel saria jasotzean esan zuen moduan: «Neutraltasunak zapaltzaileari laguntzen dio beti, inoiz ez biktimari. Isiltasunak oinaze emalea elikatzen du beti, inoiz ez oinazetua. Batzuetan, esku hartu beharra dago».

LIBURUTEGIA ETA GIZA GARAPENA

Liburutegi publikoek gero eta gehiago laguntzen dute zenbait arlotan kapitala sortzen, batez ere giza garapenaren ikuspegitik, garapen hori pertsonen gaitasunak handitzeko prozesutzat hartuta. Horretarako, garatzeko ahalegin ororen erdigunean pertsonak jarri behar direla onartzen dute, eta horiek ez direla onuradun hutsak, benetako subjektu sozialak baizik. Ildo horretan, zenbait alderdi identifikatu beharra dago, horiek ahalbidetzen baitute adierazleak eraikitzea, eta agerian uztea zenbaterainoko ekarpena egiten duten liburutegi publikoek bost interes arlotan: giza kapitala eta kulturala, kapital soziala, kapitalizazio ekonomikoa, inklusio digitala eta garapen komunitarioko pertzepzioa.

LIBURUTEGI PUBLIKOEN EKARPENAK GIZA GARAPENARI: INTERES ARLOAK

Giza kapitala eta kulturala	Ezagutza, jakintza, hizkuntza eta kode berriak txertatzen laguntzen dute.
Kapital soziala	Lankidetzeta eta konfiantza harremanen sarea sortzen laguntzen dute.
Kapitalizazio ekonomikoa	Komunitatearen baldintza ekonomikoak hobetzeko aukerak aprobeztatzen laguntzen dute.
Inklusio digitala	Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eskuragarritasunean eta erabileran dagoen arrakala ixten laguntzen dute.
Garapen komunitarioko pertzepzioa	Liburutegiak lurralde ikuspegitik bere garapen orokorrari egiten dion ekarpenaz ohartzen da komunitatea.

Iturria: Andrade, 2012

Munduko liburutegiek adibide ugari eskaintzen dituzte, giza garapenari nola laguntzen dioten erakusteko. Seguru asko, kapital kulturala da berezkoen sentitzen dutena eta maiztasun nahiz intentsitate handienaz garatzen dutena. Asiako hegoaldeko landa eremuetan, READ Global programak adin guztietarako alfabetatze jarduerak gauzatzen ditu liburutegietan. Ekimen hori oso lagungarria da eskualde horretako herritarren-

tzat, hezkuntzak batez beste 4,7 urte irauten baitu bertan. Kolonbiako Fernando Gómez Martínez Liburutegi Publikoak sarbide bereziak ditu, eta desgaitasunen bat duten pertsonak trebatzen ditu, beharrezko gaitasunak garatu ahal izan ditzaten, lanpostuak betetzeko edo artisautza modu askotarikoak ikasteko. Kazakhs-tango Oralkhan Bokeev hiriko liburutegiak zenbait tre-bezia digital irakasten dizkie desgaitasunen bat duten hogeita bat urtetik beherako gazteei, talentu sortzailea garatu dezaten; autoestimua hobetzen laguntzen die ekimen horrek. Ethiopia Reads programak hirurogeita hamar liburutegi baino gehiago jarri ditu Etiopian, eta langileak trebatu ditu; era berean, liburutegi mugiko-rrak bidaltzen ditu landa eremuetara, zaldia erabiliz (*Horse Powered Literacy*), eta, horrela, informazioaren eta ikaskuntzaren garrantzia eta onurak sustatzen ari da, garapenerako espazioak eta tresnak eskaintzeaz gain. Errumanian, landa eremuetako liburutegiek ko-detze trebezien garapena bultzatzen dute hamar urtetik hamalau urtera bitarteko gazteen artean. Era be-rean, herrialde horretan abian jarri zuten «Code Kids» izeneko programa, gaitasun digitalen arloan Europar Batasunarekiko zegoen desorekari aurre egiteko as-moz; horretarako, «ezagutza, jakintza, hizkuntza eta kode berriak txertatzeko» ahalegina egin behar izan zuten. 1995az geroztik, Txileko Patagonian, Chiloéko itsasontzi txiki bat Quemchi herriaren parean dauden dozena bat uhartetatik igarotzen da egunero. Iriste-ko zailak diren bizitokiak dira, askotan energia elek-

trikorik ere ez dutenak, ezta inolako komunikaziorik ere, eta, zenbaitetan, baldintza sozial dramatikoan agertoki. Teolinda Higuera kultura kudeatzaile eza-gun eta sarituaren eskutik, Bibliotziak hogeita bost urte baino gehiago daramatza liburuak, irakurketa eta kultura eramaten lehen horrelako ezer gutxi zeukaten espazioetara. Mechuque uharteak, Chauques uharteak, Butachauques uharteak eta Tac uharteak duela hiru hamarkada hasi ziren aurpegiak aldatzen eta bakardade-tik irteten, eta gaur egun, munduarekin komunikatzen dira, Interneterako konexioa duten ordenagailuei esker. Gaur egun, Bibliotziak zortzi mila laguni baino gehiagori ematen die zerbitzua, eta bisitatzen dituen hamaika uharteetako bizimodua eraldatzen du.

Kapital soziala, adibidez, ondorio on edo positibo sorta bati lotuta dago: osasun hobea, enplegu tasa handiagoak eta interakzio sozial hobea, besteak beste. Liburutegiak komunitateari irekitako espazio demokratiko eta inklusibo bihurtzeko estrategien eraginez, kapital sozialaren ekoizle garrantzitsu ere bihurtu dira, pertsonak elkarren artean eta elkarte, ekintza nahiz jarduera komunitarioekin konektatzen dituztelako; izan ere, biltzeko eta elkartzeko lekua eskaintzen dute, publiko ororentzako doako zerbitzu giroan. Gainera, liburutegian harreman produktiboa sortzen da etengabeko ikaskuntzaren edo bizitza osoko ikaskuntzaren artean, eta hori da erakundearen zutabeetako bat. Horrekin batera, kapital soziala sortzen da, eta hori eginkizun oso garrantzitsua da.

San Javier La Loma auzo mistoa da: langile klaseko jendea dago, alde batetik, eta nekazariak, bestetik. Ho-geita bost mila biztanle inguru ditu, eta Kolonbiako bi- garren hiri handiengan dago, Medellinen, kanpoaldean. Bertako beharretara bideratutako zerbitzu komunita- rioak ezartzeko ahalegin handia egiten bazuen ere, au- zoko liburutegi publikoak arazo bat zuen beti: ez zegoen tokiko mapa berririk. Azken mapa ofiziala 1971koa zen, eta, horrenbestez, auzoa ia ikusezina zen Kolon- biarentzat eta munduarentzat. Liburutegiak irtenbide bat bilatu zuen: mapaketa komunitario bat egitea, ko- munitateak berak auzoaren mapa sor zezan. San Javier La Lomako lauhun bizilagunek baino gehiagok parte hartu zuten proiektuan, eta oroitzapenak, argazkiak eta istorioak erantsi zizkioten mapaketa proiektuari. Gaur egun, mapa berriak online daude, eta komuni- tateko kideek etengabe alda ditzakete, bere kokape- nean eta bizitzetan gertatzen diren aldaketak islatze- ko. 2014an, proiektuak EIFL Public Library Innovation Awards saria jaso zuen, liburutegietan IKTen erabilera sortzaileari egindako ekarpenagatik.

Sarri, etorkinen populazioek kapital sozial txikiak iza- ten dituzte. Orokorrean, etorkinek atzean uzten dituzte gizarte sare egonkorrak eta ohiturak, beste herrialde ba- tera alde egiten dutenean, eta bertan dena zaie ezeza- gun. Haienezat, liburutegia lehen harrera lekua izaten da askotan; liburutegian ez diete paperik eskatzen; ez die- te exijitzen ez hizkuntzarik, ez legezko baimenik; libu- rutegian, etorkinek eskura dituzte liburuak, egunkariak

eta aldizkariak, Interneterako konexioa duten orde-
nagailuak eta seme-alabentzako espazio bat. Germán
Machado uruguaitar poetak honela azaldu zuen Face-
bookeko kontuan:

*Pare bat urte eman nituen Katalunian, ilegal gisa. Ez
nuen ez erresidentziarik, ez herritartasunik. Baina
ezin dut esan «paperik gabea» nintzenik, paperak ba-
neuzkan eta. Bat. Bat bakarrik. Generalitateko Xarxa
de Biblioteques Municipals edo Udal Liburutegi Sare-
ko txartela zen. Vic hirira iritsi eta astebetara egin zi-
daten. Joan Triadú liburutegian. Hori zen nire erresi-
dentzia eta herritartasun dokumentu ofiziala. Pozten
nau pentsatzeak liburutegiek beste edozein erakunde
publikok baino lehenago ematen dutela eskubide ho-
ri; liburutegiek harrera egiten dutela; liburutegiak
sustraiak botatzeko lur irmoak direla, zatozen leku-
tik zatozela eta zure egoera edozein dela ere.*

Liburutegiek jatorrizko herrialdeekin lotura kultura-
lak, literarioak eta sozialak mantentzeko aukera ematen
diete etorkinei; era berean, herrialde berriko bizitzara
moldatzeko behar duten informazioa eskura dezakete
bertan. Halaber, liburutegiak funtsezko eginkizuna bete
dezake etorkinen integrazio prozesuan, haiek komuni-
tateko beste kide batzuekin harremanetan jarrita, eta
prozesuan lagungarriak gerta dakizkiekeen zerbitzuak
eskainita, hizkuntza eskolak, beste askoren artean.

Ildo horretan, Torontoko Liburutegi Publikoak siriar
errefuxiatuak Kanadako bizitza berrian txertatzeko pro-

grama bat garatu du. Erabiltzaileen erdiak etorkinak zirela ikusirik, erakundeak behar bat identifikatu zuen, eta herrialdera, oro har, eta bereziki Torontora iritsi aurretik eta ondoren errefuxiatuekin komunikatzeko modua bilatu zuen. Hala, orientatzen laguntzen die, liburutegiko txartelak ematen dizkie helbide egiaztapenik gabe eta informazio nahiz laguntza sare bat sustatzen du, iritsi berriak hirian bizi diren errefuxiatu ohiekin harremanetan jartzeko. Zalantzarik gabe, programa ongi-etorri egokia da gatazkaren ondorioz bizitza suntsituta iristen direnentzat.

Era berean, Wallmapun, Txileko lurralde maputxean, Tirúako Liburutegi Publikoak «erreminten mailegu» zerbitzua ezarri zuen 2005ean. Erotuta ote zeuden galdetu zieten, baina Dina Carripán liburutegiko buruak bazekien munduko erabaki zentzuzkoena zela: emakumeek erremintak behar zituzten. Beraiek esaten zioten. Mailua, bihurkina, etab. Izan ere, Bio-Bio eskualdeko arrantzale herri horretan, Tirúan, ama ezkongabe batek edo emakume etxe jabe batek nekez lor zitzakeen halako oinarritzko tresnak. Hortaz, Dinak funtsak lortzeko lehiaketa batean aurkeztu zuen egitasmoa, eta liburuen ondoan erreminta kutxa bat jarri zuen, duela hogeita hamar urtetik zuzentzen duen liburutegian. Handik gutxira, beste funts bat irabazi, eta josteko makinak erosi zituen, komunitatean identifikatutako beste behar bat. 2010ean, Txilen gertatu zen lurrikarak eta ondorengo tsunamiak Tirúaren zati handi bat suntsitu zuten, eta liburutegia desagertu egin zen; baina bi hilabete igaro au-

rretik, liburutegi zerbitzua martxan zegoen berriro; sei urte geroago, liburutegi berria inauguratu zuten. Handik gutxira, berriro ezarri zuten erreminten mailegu zerbitzua. «Liburutegia da herriaren bihotza», dio Dinak. Ezin zen bestela izan.

Liburutegietatik bideratutako inklusio digitaleko kasuak ugaritu egin dira planeta osoan barrena. Erriadheko Liburutegi Publikoak (Djerba uhartea, Tunisia) hezkuntza maila oso baxuko emakumeak trebatzen ditu. Ekimenaren ardatza parte hartzaileengan konpetentzia digitalak sortzea da, eta lan aukerak ekarri dizkie emakumeei. Ugandan, Kitengesako liburutegi komunitarioak entzumen arazoak dituzten haurren eskura jartzen ditu teknologiak, ordenagailuak eta irakurketa, baita lagunekin elkartu eta jolasteko espazio bat ere, liburutegi komunitarioak dituen ohiko seihun eta berrogeita hamar inguru erabiltzaileekin partekatzen dutena. Kroazian, Zagrebeko liburutegiek teknologien erabileran trebatzeko aukera eta lan munduari buruzko informazioa konbinatzen dituen zerbitzu bat eskaintzen diete etxerik ez duten pertsoneri; horri esker, enplegua lortzeko gaitasunak eskura ditzakete. Era berean, motibazioa eta babes psikosoziala ematen dizkiete, hobari sozialak lortu, eta senide nahiz lagunekin harremanetan jarri ahal izateko. Kazakhstanen, Öskemen hiriko Oralkhand Bokeev liburutegiak aktiboagoak, seguruagoak eta independenteagoak izaten laguntzen die gaitasun desberdinak dituzten gazteei, gizartean berdintasunean integratzeko erronkei aurre egin diezaieten. Hiru erakunde horiek ere EIFL

Public Library Innovation Awards saria jaso zuten, liburutegietan IKTen erabilera sortzaileari egindako ekarpenagatik.

Aipatutako adibideek argi erakusten dute liburutegietan kapitala sortu nahi bada, giza garapeneko ikuspegia dela abiapuntua, garapen hori pertsonen gaitasunak zabaltzeko prozesutzat hartuta. Horretarako, garapen ahalegin ororen erdigunean pertsonak jarri behar direla onartzen dute liburutegiek, besteak beste, eta horiek ez direla onuradun hutsak, benetako subjektu sozialak baizik.

LIBURUTEGIA ETA GARAPEN EKONOMIKOA

Liburutegi publikoei eta informazioaren gizarteari buruzko Kopenhageko Adierazpenak aipatzen du «garapen ekonomiko eta soziala» ere sartzen dela liburutegien funtzio anitzen artean (demokrazia eta herritartasuna, etengabeko ikaskuntza, kultura eta hizkuntza aniztasuna); izan ere, «liburutegi publikoek komunitateen hazkundera bultzatzen dute, tokiko beharrak asetzeko diseinatutako informazio zerbitzuak eskainiz. Tresna garrantzitsuak dira, herritarrek informazioaren eskuragarritasunean dituzten desberdintasunak murrizteko» (1999, 1. or.).

Bada nahikoa literatura, bai akademikoa, bai kasu azterketakoa, liburutegi publikoen eta tokiko garapen ekonomikoaren artean benetako lotura ezartzeko aukera ematen duena. Ikerketek iradokitzen dutenez, leku batean liburutegi publikoen potentziala baliatzen bada ekintzailletza bultzatzeko eta komunitateak ildo horretan trebatzeko (bitarteko digitalen erabileran, bereziki), garapen ekonomikoa ere bultzatzen da, oro har. Mundu

osoan, bereziki Afrikan eta Latinoamerikako zenbait kasutan, liburutegi publikoek beren programak, zerbitzuak eta baliabideak aldatu dituzte, tokiko ekonomien garapenari mesede egingo dioten abileziak eta gaitasunak eraikitze aldera. Tokiko elkarteekin batera gauzatutako ekimenak erabakigarriak izaten ari dira, liburutegi publikoek garapen ekonomikoari begirako ikuspegia txertatzeko. Ildo horretan, eginkizun bereziki garrantzitsua izan dezakete pertsonengan eta horien bizi kalitatean ardatzen diren garapen ekonomikoko ekimenetan.

Kanadan, Marvin Shafferren azterlan batek Vancouverreko Liburutegi Publikoaren balioa ebaluatu zuen, eta bi elementu aurkeztu zituen hura zehazteko: erabiltzailearentzako onura zuzena eta komunitatearentzako zeharkako onurak. Erabiltzailearentzako onura zuzena liburutegiak doan eskaintzen dituen zerbitzuen merkatuko balioa da; zeharkako onurak, ordea, alfabetatzeak, ikas-kuntzatiak, komunitatearen eraikuntzatiak eta liburutegi publikoek sortutako beste eragin positibo batzuetatik eratorritakoak dira. Liburutegien eragin horren egungo adibide oso on bat Boli Kostako La Grainothèque (Hazien Liburutegia) da: Iroboko Liburutegi Publikoko irakurketa gelak liburuak eta haziak ditu gune batean. Hiru motatako aleak daude bertan: loreenak, barazkienak eta gozagarrien landareenak; eta hazi horiek hazteko teknikei buruzko liburuak eta dokumentazioa. 2017an, bi tonale baino gehiago «mailegatu» zituen liburutegiak, eta 2018an jaso zituen bueltan. Gainera, haziak trukatzeko espazio bilakatu da, «trukerako lekua: hartu = eman».

Urban Libraries Council ULCK, Estatu Batuetako liburutegi metropolitarrak, *Making Cities Stronger: Public Library Contributions to Local Economic Development* izeneko ikerketa egin du, eta liburutegi publikoak eta tokiko gobernuak garapen ekonomikoa hobetzeko lantzen ari diren lau arlo nabarmentzen dira bertan.

Lehenik eta behin, liburutegietan antolatzen diren alfabetatze eta haur hezkuntzako zerbitzuek epe luzeko arrakasta ekonomikoa lortzen laguntzen dute. ULCKren hitzetan, «zerbitzu horiek dira ezagutzaren ekonomian tokiko lehiakortasuna bermatuko duen lan indar ikasia eraikitzeko beharrezko inbertsio katearen lehen maila» (2008, 21. or.). Azken hamarkadetan, handitu egin da liburutegi publikoen irismena, eta, orain, bereziki lehen haurtzararentzat antolatutako zerbitzuak eskaintzen dituzte; izan ere, ohartu dira haurren garapena hobetzean, komunitaterako programak ere hobetzen direla, eta familientzako programa eta zerbitzuek balio handiagoa hartzen dutela. Ikerketak planteatzen duenez, lehen haurtzaroko hezkuntzari lotutako etekin ekonomikoak gobernuak garapen ekonomikorako finantzatzen dituen proiektuetakoak baino handiagoak dira.

Bigarrenik, programa horiek babesteko komunitatearen, liburutegien, erakunde publikoen, gobernu kanpoko erakundearen eta sektore pribatuaren artean gauzatu diren lankidetzak ekimenak mesedegarriak dira sare komunitario indartsuagoa ezartzeko lan trebakuntzako

edo formakuntzako gaietan. Era berean, hezkuntza nahiz enplegu arloan dauden beharrei erantzuteko aukera ematen diete komunitateei, modu eraginkor-rragoan baliatzen dituztelako tokiko lan merkatuaren indarguneak.

Hirugarrenik, liburutegi publikoak enpresaburuei eta enpresa txikiei babes handiagoa ematen hasi dira; izan ere, tokiko ekonomien osagai garrantzitsuak dira, eta enplegu berrien hiru laurden baino gehiago sortzen dituzte. ULCren arabera, «produktuen, hornitzaileen eta negozio finantziazioaren gaineko datu osatuen eskura-garritasuna» izan da, tradizionalki, enpresa txikien langa handienetako bat (2008, 24. or.). Liburutegi asko tokiko bazkideekin lanean hasi dira, enpresa txikiei laguntzeko tailer berritzaileen eta plangintzarako zein garapenerako mintegien bidez. Horrek zenbait merkatutara sartzeko langak txikitu ditu; ondorioz, kostuak murriztu dizkie ekintzaileei eta enpresaburu txikiei, eta tokiko ekonomiaren garapenari mesede egin dio. Horren adibide dira Ingalaterrako liburutegi publikoak, beren potentziala baliatzen dutenak eta herritar ororentzako ezinbesteko baliabidetzat hartzen direnak: British Library-k, bere Business & IP Centre-ren bidez, doako hitzaldi eta trebakuntza programa zabala antolatu du herrialde osoan ekintzaileentzat eta enpresaburu txikientzat, tokiko liburutegietan. Urtebetean bakarrik, hamasei mila eta bostehun laguni baino gehiagori lagundu die negozio berriak sortzen eta garatzen; hau da, ia berrogeita hamar enpresabururi egunero.

Laugarrenik, liburutegi publikoen eraikinak garapenaren katalizatzaile fisikoak izan daitezke. Kasu askotan, komunitateak gehien erabiltzen dituen azpiegituren artean daude, horretarako potentziala dutelako. Liburutegia egonkortasunarekin, segurtasunarekin eta bizi kalitatearekin lotzen da; hori dela eta, zenbait enpresak eta merkataritzak onura ateratzen diote liburutegi publikoak sortzen duen oinezkoen trafikoari.

Aurreko guztiaren harira, Lewis G. Liuk (2004) alfabetatzearen, liburutegi publikoen eta produktibitate ekonomikoaren artean gertatzen den egituraketa aztertzen du. Haren aurkikuntzek erakusten dutenez, liburutegi publikoek alfabetatze tasak handitzen laguntzen dute, eta horrek, era berean, produktibitate ekonomiko nazionala handitzen du.

Hezkuntza erakundeen eta garapen ekonomikoaren arteko lotura azertu duten ekonomialarien eta hezitzaileen lanean oinarritzen da Liu. Akademiko horiek giza kapitalaren teoria erabiltzen dute hezkuntzak eta alfabetatzeak nazio baten ekonomiaren arrakastan eragiten dutela azaltzeko. Hezkuntza eta trebakuntza gisa, giza kapitalak produktibitatea hobetzen laguntzen du, eta, era berean, hazkunde ekonomikoa eta garapena sustatzen ditu. Hori dela eta, giza kapitalean inbertitzeak kapital fisikoan inbertitzean lortzen diren itzulkin ekonomikoaren antzekoak sortuko lituzke. Alfabetatzeak giza kapital handiagoa garatzen lagundu dezake, eta horrek, aldi berean, mesede egin diezaioke herrialde baten pro-

duktibitate ekonomiko orokorrari. Erlazio horrek inplikazio politiko batzuk ditu. Puntu horri buruz, Liuk dio ezinbestekoa dela funtzionario publikoek argi izatea liburutegi publikoek eragina dutela hazkunde ekonomikoan; era horretara, «epe motzerako politika miopeen ondorioz» erakunde horien funtsak murriztea saihestuko da.

Horren haritik, oso esanguratsuak dira Letoniako liburutegi publikoen balio ekonomikoa eta inpaktua neurtzeko azterketa baten emaitzak (2012). Bertan adierazten denez, 2008-2010 aldian, ia hogeita hamalau milioi eurokoa izan zen liburutegi publikoek Letoniako biztanleentzat sortutako urteko batez besteko irabazi osoa, eta liburutegi sistemaren urteko kostuak hogeita lau milioi euro pasatxokoak izan ziren. Horrek esan nahi du urtean bederatzi milioi euro baino gehiagoko irabazi garbia izan zela. Ikerketak liburutegi sistemak sortutako onura ez-monetario garrantzitsuak ere identifikatu ditu; horien artean, nabarmentzekoa da liburutegiak sozializatzeko eta sareak sortzeko espazio gisa betetzen duen eginkizuna. Azterlanaren emaitzetatik ondorio garrantzitsu bat atera daiteke: liburutegiek, gizartearen garapen kulturalan laguntzeaz gain, beren existentzia babesteko oinarri ekonomiko sendoa ere eskaintzen dutela, irabaziak kostuak baino handiagoak direlako.

Ottawa Declaration Working Group taldearen ekimenez, Oxford Economics-ek *Value Study of GLAMs in Canada* azterlana argitaratu zuen 2019an, eta bertan berretsi

egiten da goian adierazitakoa. Azterlanaren arabera, irabazi asmorik ez duten erakunde horietan inbertitzen den dolar bakoitzeko ia lau dolar jasotzen ditu irabazietan gizarteak; eta liburutegiek egiten diote ekarpen handiena adierazle horri. Etekin hori Kanadako gobernuak garraio azpiegituretako proiektuetan egiten dituen inbertsioekin bakarrik da alderagarria.

Irabazi asmorik ez duten liburutegiek, artxiboek, museoek eta arte galeriek ekarpen kolektibo handia egiten dute; bai hiri handietan, bai herri txikietan, erakusketa garrantzitsuak erakartzen dituzte, eta komunitateei funtsezko hezkuntza eta ikerketa aukerak ematen dizkiete, bestela eskura izango ez lituzketenak.

Azterlan horrek esparru horretan adierazleak dituzten herrialdeetako kultur erakundeek erabili ohi dituzten metrikak erabiltzen ditu. Han ikusi zen erakunde horien erabiltzaileak prest zeudela urtean lau mila milioi gehiago ordaintzeko, zerbitzuak mantentzeko beharrezkoa balitz. Datu horrek argi erakusten du zenbateraino baloratzen dituzten kanadarrek.

Hainbestearaino baloratzen dituzte, ezen erabiltzaile ez direnek ere onartzen baitute liburutegiek eta gainerako erakundeek garrantzi handia dutela gizartearentzat, oro har, eta etorkizuneko belaunaldientzat, bereziki. Izan ere, azken batean, liburutegietara egiten diren bisitek beste onura sozial asko dakartzate, hala nola alfabetatze, berrikuntza, ezagutza eta sormen handiagoak.

LORATZEN ARI DIREN KOMUNITATEAK

LATINOAMERIKAKO BOST LIBURUTEGIEN ESPERIENTZIAK¹

Latinoamerikako liburutegien historia oso berria da. Lehenengo liburutegi publikoak XIX. mendearen amaieran agertu ziren, eta XX. mendearen bigarren erdian hasi zen benetan eratzen liburutegi publiko eta komunitarioen sare bat kontinente osoan. Liburutegien historia liburuaren historiaren eskutik doa, eta historia hori ere berantiarra izan da eskualdean, Europarekin edo Estatu Batuekin alderatuta.

Liburutegiei buruzko egungo kontzeptua —irakurketaren sustatzaile, kulturaren protagonista eta aldaketarako eragile direlako ideia— duela hiruzpalau hamarkada iritsi zen Latinoamerikara, ez lehenago. Hori dela eta,

1 Kapitulu hau beste testu batean oinarrituta dago; jatorrian ingelesez argitaratu zen, liburu honetan: *Living Libraries. The house of the community around the world* (2021). Utrecht: Bibliotheek Utrecht.

eskualdeko herrialde gehienek neurri politikoak hartu behar izan dituzte, tokiko argitalpen industria indartzeko, liburutegi sareak ezartzeko eta irakurketa programak sortzeko.

Latinoamerikan, askotariko moduak erabili dituzte liburutegiak ezartzeko, eta gaur egun, bertako herrialde guztietan daude, hezkuntza maila edo maila ekonomikoa edozein dela ere.

Liburutegiek beren herrialdeetan dagokien lekua aurkitzeko zer egin duten, aniztasuna nola txertatu duten, zerbitzuak nola zabaldu dituzten eta komunitatearekin nola lan egin duten aztertu nahi du artikulu honek, zenbait adibideren bitartez.

Liburutegi metropolitarraren kasua aztertuko dugu, São Paulo bezalako hiri handi baten ereduari erreparatuta. Kolonbiako Sierra Nevadako komunitate indigena mehatxatu batean liburutegi komunitarioak nolako lana egiten duen ikusiko dugu. Era berean, liburutegi nazional baten kasua ezagutuko dugu; horrelakoak, normalean, lotuago egoten dira ondarearen ikerketarekin, eta erabiltzaileei baino gehiago erreparatzen diete baliabideei, baina, ikusiko dugun adibideko liburutegi nazionala gai izan da zoritxarra behin eta berriz gainditu eta indartuta ateratzeko, fenix hegaztiaren antzera, eta pertsonengandik oso hurbil dagoen ezohiko zerbitzu bilakatu da. Horrez gainera, Latinoamerikako liburutegien testuingurua goitik behera aldatzera etorri diren liburutegi digitalen in-

basioaren adibide nabarmen bat ezagutuko dugu. Eta ikasiko dugu sarean lan egitea funtsezkoa dela, komunitateak indartzeko eta liburutegiak proiektatzeko.

Ehunka dira Latinoamerikako liburutegietan gauzatu dituzten praktika onak. Hemen jasota dauden adibideak hiri handi batean edo urrutiko herrixka batean egunero gertatzen denaren lekukotza gutxi batzuk besterik ez dira. Liburutegiak berritzen ari dira, komunitatei informazioa, hezkuntza eta kultura eskaintzeko. Orogen gainetik, herritarren bizi kalitatea hobetu nahi dute, guztien kapital soziala, ekonomikoa, politikoa eta komunitarioa handituz.

Liburutegiak oinarrizko erakundeak dira Latinoamerika garaikidean. Haien inguruan kultura jarduerak garatzen dira, eta, aldi berean, herritarren bizitza soziala, ekonomikoa eta politikoa zabaltzeko aukera ematen dute. Horri esker, erabiltzaileek erakundearen parte direla sentitzen dute; jakintza trukea gertatzen da; ezagutza sortu, eta komunitatea eratzen da.

Mehatxutik aukerara: Peruko Liburutegi Nazionala

Liburutegi nazionalen ezaugarri bereizgarria izaten da herrialde batean inprimatzen diren argitalpen guztiak eskuratu eta gordetzeko ardura dutela; era berean, gordailu gisa funtzionatzen dute, lege xedapenei jarraikiz – kasu gehienetan–, edo beste era bateko xedapenei. Normalean, beste funtzio batzuk ere betetzen dituzte; esate baterako, bibliografia nazional bat prestatzea. Oro har, liburutegi nazionalen eginkizun gehienek zerikusia dute bertako materialekin: eskuratzea, biltegitratzea, kontserbatzea eta digitalizatzea.

Liburutegi nazional bateko baliabideen erabiltzaile nagusiak ikertzaileak eta ikasleak dira. Ez da batere ohikoa horrelako liburutegi bat herritarren zati handienarengana heltzea, eta, are gutxiago, haiengandik urrun badago. Orokorrean, ez ditu aintzat hartzen audientzia zabalentzako produktuak, aurreiritzi honetan oinarritzen da eta: horrelako espazioetan ekoizitako gaiak hain dira espezializatuak, ezen ondarearen kontserbazioa eta haren zaindari adituak bakarrik baititu jomugatzat.

Horrela izan da, orain arte.

Historia apur bat

Peruko Liburutegi Nazionala 1821eko abuztuaren 28an sortu zen, herrialdeak Espainiako monarkiarekiko independentzia lortu eta hilabetera, hain justu (Espainiak amerikar kontinente osoan barrena zeuzkan koloniak, Mexikotik hegoalderaino). Buruzagi independentistek liburutegia ezinbesteko erakundetzat aitortzen zuten jaio berri zen errepublika berrian; izan ere, ezjakintasuna despotismoaren zutabe sendoena zela zioten, eta horregatik izan zuela Espainiak kateatuta perutarren pentsamendua, duintasunaren ezagutza barnera zezaten eragozteko.

Liburutegi horren historia zoritxarrez josita egon da: berrehun urte baino gutxiagoan, gerrak, lapurretak, suteak eta lurrikarak jasan ditu; bilduma oso baliotsu askoren galera konponezina eragin dute horiek. Inongo zalantzarik gabe, gertaeretan okerrera 1881etik 1883ra bitarte Ozeano Bareko Gerran Txileko armadak Lima inbaditu zuenean jazotako lapurreta suntsitzailea izan zen. Hondamendi eta arpilatze urte luze haietan, zibilak eta, batez ere, erlijiosoak, Liburutegi Nazionaleko altxor nagusien hautaketa arretatsua egiteaz arduratu ziren. Peruko intelektual nabarmenei esker, 738 liburuki salbatu ziren, ozta-ozta; 56.000 liburutik gora galdu ziren.

Peruko Liburutegi Nazionala gaur egun

Gaur egun, liburutegiak bi egoitza ditu, biak herrialdeko hiriburuan kokatuak eta publikoari irekiak. Jatorrizko eraikina Abancay hiribidean dago, Limako erdigune historikoaren bihotzean. Liburutegi modernoagoa Poesiaren hiribidean dago, San Borjako barrutian. Franco Vella arkitekto perutarrek diseinatutako eraikina da, eta Peruko XII. Arkitektura Bienalean Urrezko Hexagonoa irabazi zuen, 2006an. Munduko liburutegi nazional askoren antzera, misiotzat du Peruko ondarea berreskuratu, zaindu eta zabaltzea; baita informazioaren eskuragarritasuna bermatzea ere, ikerketarako, garapen zientifiko nahiz teknologikorako eta herritarren gozamenerako.

Ezaugarri oso berezia du, aipatutako bi egoitzez gain, beste bost gune edo liburutegi publiko ere administratzen baititu, Comas, Breña, El Rímac, El Agustino eta La Victoria barrutietan kokatuak.

Gainera, Peruko Liburutegi Nazionalaren gidaritzapean daude herrialdeko liburutegi publiko guztiak, izan eskualdekoak, probintzialak, udaletakoak edo komunitarioak, eta Liburutegien Sistema Nazionalaren bidez bete behar du gidaritza funtzio hori. Egitura horri jarraituz ezarri behar lirateke planak, programak eta ekintzak herrialde osoan, baina Peruko legeetan egitura hori aspalditik existitzen zen arren, 2019. urtera arte ia hutsala izan da inplementazioa.

Pandemia: beste tragedia bat liburutegiaren historian?

Berrehun urte betetzeko urtebete falta zitzaiola, beste zoritxar batek mehatxatu zuen Peruko Liburutegi Nazionala: 2020ko martxoaren 13an, COVID-19aren pandemiaren ondorioz, BNPren egoitza guztiak eta liburutegi publikoak ixtea agindu zuten, eta langileek konfinatu egin behar izan zuten. Hala, liburutegiaren administrazio batzorde berria, kargua bi hilabete lehenago hartu zuena, 2020ko urtarrilean, lanerako egoitzarik gabe eta ekimenak garatzeko giza talderik gabe geratu zen.

BNPk arreta ia eskusiboki presentziala ematen zien erabiltzaileei, baina lehen egunetatik heldu zion erronkari, Peruko biztanle guztientzat informazioa eta kultura eskura egotea bermatzen jarraitzeko; erakundeak ordura arte oso gutxi esploratutako bideak erabili zituen horretarako. Testuinguru hartan, modalitate aniztasuna izan zen apustu berria, eta horrek berekin ekarri zuen erabilgarri zeuden bide guztiak erabiltzea era askotako publikoari erantzuteko, zerbitzu egokiak emanez. Hortaz:

- Aldi berean erabili zituzten bide tradizionalak eta bide berritzaileak, fisikoak nahiz digitalak, hurbileko eta urruneko arreta elkartuta.
- Kontsulta pertsonalizatuak modu berritzaileetan egiteko zerbitzuak ezarri zituzten.

- Abian jarri zuten liburu fisikoak zenbait bidetatik mailegatzeko zerbitzua.
- Liburutegi publiko digitala ezarri zuten.
- Telefono bidezko irakurketak egin zituzten.
- Irakurketa klub birtualak antolatu zituzten, baita ikusmen urritasuna zuten pertsonentzat ere.
- Osasun larrialdiaren hamargarren egunean, programazio kultural eta akademiko oparoa jarri zuten abian, BNPren sare sozialen bidez, eta horrek esponentzialki areagotu zuen aurreko programazio presentziala.
- BNPk argitalpen sektoreari ematen zizkion zerbitzuak birtualizatu zituzten, haien jarduera ekonomikoa garatu ahal izateko.
- Liburutegi publikoak indartu zituzten, trebakuntza saio, topaketa eta jarduera birtualen bidez.
- Liburutegi Sistema Nazionalaren Legea birformulatu zen, benetan ezar zedin lortzeko.

Barne komunikazioko plan zabalari esker lortu zen hori guztia, eta plan horretan inplikaturik egon ziren liburutegiko funtzionarioak, zeintzuek trebakuntzak jaso baitzituzten, ezagutzak eguneratzeko.

Estrategia

Ezin zenez inolako jarduerarik gauzatu, egun gutxiren buruan, astebete baino gutxiagoan, Peruko Liburutegi Nazionaleko profesionalak komunitatearengana iristeko estrategia bat diseinatzen hasi ziren. Oraindik ez zekiten zenbaterainokoa izango zen pandemia, ezta konfinamenduak zenbat iraungo zuen ere.

Estrategia horren lehen produktua 2020ko martxoaren 26an aurkeztu zuten, herrialdean itxialdi orokorra hasi eta hamar egun pasatxora. Une hartatik aurrera, zenbait zerbitzu eta ekimen aurkeztu zituzten, pixkana-pixkana. «Lectura, biblioteca y comunidad» (Irakurketa, liburutegia eta komunitatea) izeneko solasaldi sorta apirilaren 3an hasi zen; «Diálogos en tiempos de cambio» (Elkarrizketak aldaketa garaian), apirilaren 16an; «Historia del Perú» (Peruko historia) programa, maiatzaren 18an; «Aló BNP» (BNP, bai, esan) telefono bidezko irakurketa zerbitzua, ekainaren 24an; banaketa bidezko liburu mailegua, ekainaren 25ean. Eta horrela, zerbitzu eta programa gehiago antolatu zituzten, hurrenez hurren.

Estrategia horrek hiru lerro ditu oinarritzat: urrutiko zerbitzuak, argitalpen sektorearentzako zerbitzuak eta programazio akademikoa eta kulturala.

1. Urrutiko zerbitzuak

- «Aló BNP»: telefono bidezko irakurketa zerbitzua adinekoentzat, informazioa eta irakurketa haien eskura jartzeko. Zenbait irakurketa mota aukera ditzakete, hala nola literatura, gizarte zientziak, historia, zientzia puruak, poesia, haur literatura eta beste gai batzuk. Gainera, zerbitzuak egunen eta ordutegien bi aukera hautatzen uzten die, gehienez ordu erdi irauten duen deia jasotzeko. Nahi duten erabiltzaileek senide baten izena ere eman dezakete, deia jaso dezan.
- Irakurketa klub birtualak: askotariko publikoarentzat, nagusiki nerabe eta helduentzat, ikusmen urritasuna duten pertsonentzat edo irakurketa bitartekariarentzat. Klub guztiak bideokonferentziatarako plataformen bidez egiten dira, hilean lau aldiz.
- «Leyendo con tacto» (Ukimen bidezko irakurketa): ikusmen urritasuna duten pertsonentzat antolatutako irakurketa klub birtuala.
- Liburu banaketa: zerbitzu hau zenbait modutan eskaintzen da. Kasu batzuetan, liburuzain batek oinez banatzen ditu liburuak, BNPko liburutegi publiko baten inguruan, bost kaleko erradioan; beste batzuetan, motoz edo bizikletaz eramaten dituzte zenbait puntutara, Limako barrutian eta ondoko barrutietan (pixkanaka zabaltzen joango

dira). Liburuak erabiltzaileek eskatzen dituzte aldez aurretik, telefonoz edo Internet bidez; gainera, pertsonalki ere joan daitezke liburuen bila, nahi izanez gero.

- Liburuzainarekin txateatzeko zerbitzua: era guztietako kontsultak denbora errealean argitze-ko arreta zerbitzua, liburuzain espezialista batek txat bidez ematen duena.
- BNPBot-ekin txateatzeko zerbitzua: galde-
rei berehala erantzuteko sistema adimenduna, BNPren zerbitzuei eta bildumei buruzko infor-
mazio orokorra ematen duena. Zerbitzua urteko
365 egunetan eta egunean 24 orduz eskaintzen
da, eta erabiltzaileek Interneta duen edozein gailu
mugikor edo ordenagailutatik erabil dezakete.
- Ondarearen liburutegi digitala: hirurogeita hamar
mila ondare-dokumentu digitalizatu baino gehia-
go dituen bilduma.
- Liburutegi Publiko Digitala: Android eta iOS siste-
ma eragileetarako web plataforma eta mugiko-
rretarako aplikazioa, milaka liburu digital doan
eskuratzeko aukera ematen diena perutarrei,
munduko edozein lekutan, baita herrialdean bizi
diren atzerritarrei ere. Erabilera intuitiboa duenez,
erabilerraza da haur zein helduentzat. Bertako
izenburuen artean egile eskubideak indarrean
dituzten eta liburu dendetan eskaera handia

duten liburuak daude: bestsellerrak, gaurkotasun liburuak, klasikoak, sari nazionala eta Nobel saria jaso duten lanak, haurrentzako ipuinak, bideo- ipuinak eta audio-liburuak.

- Lankidetzazko baliabide digitalak haurrentzat, nerabeentzat eta ikusmen urritasuna duten pertsonentzat: Hezkuntza Sistema Nazionalak ikasleei eskola laguntza emateko dituen esteka pedagogikoetara bideratuta daude. Horregatik, etxean ikasteko («Aprendo en Casa») programak proposatzen dituen gaiak eta ikastaroak hartzen dira kontuan, euskarri zuzena eman nahian Hezkuntza Ministerioak urrutiko hezkuntza emateko martxan jarri duen ekimenari.

2. Argitalpen sektorearentzako zerbitzuak

- Lege Gordailuaren kudeaketa: birtualki erregistratzeko tramitea ezarri zen. Plataforman erregistratuta, egileek eta editoreek doan eta berehala lor dezakete Lege Gordailuaren Behin-behineko Ziurtagiria, esleitutako zenbakiarekin.
- ISBN: zerbitzu hau birtualki eskaintzen hasi zen. Argitalpen sektorea babesteko, zerbitzuaren kostua beheratu zen, eta, salbuespen gisa (oraindaino indarrean dago), argitalpen digitaletarako ISBNa eta barra kodea doan esleitzen dira.

- Gastuak egiaztatzeko ziurtagiria, zergak itzultzeko: liburua eta irakurketa sustatzeko pizgarriak ezarri dira, argitaletxeek zergak ordaintzetik salbuesteko eta zergak itzultzeko onurak jaso ahal izan ditzaten.
- Paperezko liburutik liburu digitalera pasatzeko tailerra: editoreentzat, egileentzat, diseinatzaileentzat, programatzaileentzat eta argitalpen sektoreko beste edozein profesionalentzat antolatutako tailerra. Helburutzat du argitalpenaren industriako eragileei liburu digitalen ekoizpenari, argitalpenari eta banaketari buruzko ezagutzak eskaintzea, baita argitalpen industria ingurune digitalean txertatzeko prozesuen lege esparruaren gaineko orientazioa ematea ere.

3. Programazio kultural eta akademiko birtuala

- «Lectura, biblioteca y comunidad» (Irakurketa, liburutegia eta komunitatea): liburutegien eginkizun sozial eta kulturalari buruzko hitzaldiak, munduko zenbait txokotako espezialistekin: Espainia, Portugal, Argentina, Mexiko, Brasil, Txile, Kolonbia, Guatemala eta Peru.
- «Voces que unen» (Elkartzen gaituzten ahotsak): irakurketa sustatzeko ekimena, helburutzat duena kulturarekin, arteekin, liburuarekin, irakurketarekin nahiz liburutegiekin zerikusia duten pertsona ezagunek irakurritako liburuen bidez peruterarrak elkartzea, eta itxialdian elkarri konpainia egitea.

- «Diálogos en tiempos de cambio» (Elkarrizketa aldaketa garaian): zenbait diziplinatako (filosofia, politika, soziologia, historia) espezialistek pandemiak eragindako aldaketak aztertzeko elkarrizketa zikloa.
- BNPrez zineforuma: Peruko zinema zabaltzeko espazioa. Solasaldi bakoitzean, herrialdeko zuzendariak eta zinema ekoizpeneko adituek parte hartzen dute, eta beren filmi buruz hitz egiten dute.
- «Historia del Perú» (Peruko historia): Peruko historiako etapei buruzko bideokonferentzia magistralen programa, historialariek eta ikertzaileek eskainia.
- «Igual de diferentes» (Desberdintasunean berdin): irakurketarekin eta ikusmen urritasunarekin lotutako gaiei buruzko solasaldi zikloa, helburutzat duena pertsona horiek gizartean dituzten erronken gainean sentsibilizatzea.
- «Libro que va, libro que viene» (Liburua joan, liburua etorri): haur literaturako irakurketa jarduera, 4 urtetik 7 urtera bitarteko haurrentzat.
- «Transcriptón» (Transkripzio aldia): jarduera honek XVI. mendetik XIX. mendera bitarteko 800 eskuizkribu dituen plataforma batean sartu, eta bertan transkribatzera gonbidatzen ditu herritarrak. Era horretara, zuzenean ezagutzen dute ondare bibliografiko dokumentala, eta Peruko idatzizko memoria berreskuratzen laguntzen dute.

- BNPre podcastak: podcast hauetan zenbait gai jorratzen dira, esate baterako: liburutegi publikoen eginkizuna, liburu elektronikoa, perutar emakumeek idatzitako literatura ondare bibliografikoan, liburu dendak normaltasun berrian eta gurasoen irakurketa saioak seme-alabentzat.
- «Cómo nos pensamos los peruanos» (Perutarren iritzia perutarrei buruz): zenbait arte diziplinako begiradatik abiatuta, askotariko identitateei buruz hausnartzeko elkarrizketa zikloa.
- «Programa de Literatura Peruana» (Literatura perutarri buruzko programa): perutar literaturari buruzko konferentzia magistral birtualen zikloa, ikertzaile nabarmenekin.
- «Voces bibliotecarias en red» (Liburutegietako ahotsak sarean): liburutegiei eta liburutegi politiki buruzko elkarrizketa saioa, helburutzat duena liburutegien garrantzia eta lana azpimarratzea, baita horien garapena indartzea ere.
- «Nuestra historia, nuestra memoria» (Gure historia, gure memoria): BNPk zaintzen duen Peruko ondare bibliografiko dokumentala ezagutzera emateko kanpaina.
- «Punto de Encuentro» (Topalekua): eskola umeentzat, irakasleentzat eta komunitatearentzat antolatutako hitzaldi zikloa, hezkuntza proiektu eraldatzaileen gaineko elkarrizketa eta hausnar-

keta proposatzen duena. Partaidetzan oinarritutako ikuspegia du, eskola ume batek parte hartzen baitu hitzaldian.

- BNPren aholkuak: BNPKo langileen laguntzaz sortutako bideoak, herritarrei liburuak zaintzeko moduari eta etxeko liburutegiak antolatzeko moduari buruzko aholkuak emateko, besteak beste.
- Xake eskolak: haur, nerabe eta gazteentzako taletarra, ikuspegi ludikoa duena.

Eduki guztiak Liburutegi Nazionalaren plataformetan, bideokonferentzia plataformetan, sare sozialetan (nagusiki, Facebook eta YouTube) eta Spotify aplikazioan bildu eta transmititzen dira, baita Peruko irrati eta telebistetan bidez ere.

Zer gertatu zen eduki horrekin?

Baliteke hau izatea adierazle esanguratsuenetako bat: hamar milioi pertsona inguruk ikusi edo erreproduzitu zituzten edukiak, Peruko lurralde osoan eta munduko berrogei herrialde baino gehiagotan. Hau da, liburutegiaren erabiltzaile kopurua milaka aldiz handitu zen, publiko presentzialarekin konparatuta (urtean bostehun mila lagun baino gutxiago), eta BNPK audientzia marka guztiak apurtu zituen, aurretik inoiz lortu ez zituenak –izan ezjakintasunagatik edo muga geografikoengatik–.

*Liburutegiak eraikitzen dituzten
komunitateak eraikitzen:
São Pauloko liburutegi metropolitarraren
esperientzia, Brasilen*

Liburutegi metropolitarrak funtsezkoak izan dira Latinoamerikako herrialdeetan liburutegi sistemak eraikitzeko. Eredu dira liburutegi txikientzat; laborategi, saiakuntza eta esperimentazio espazioak dira, eta beste liburutegi batzuek imita ditzaketen praktika onen erakusleiho gisa balio dute, baldin eta haien funtzioak eta dohainak sustatzen badira, egiten duten lana edo komunitateetan izan dezaketen inpaktua ezagutzen ez duten agintariaren aurrean.

Mexiko Hirian edo Bogotan, Medellinen eta Santiagon, Antofagastan edo Coyhaiquen, Serenan edo São Paulon, liburutegi horiek dira identitate latinoamerikarreko kultura, informazioa, aisialdia eta etengabeko hezkuntza eskuratu nahi dituzten egungo herritarren eskaerentzako erantzun garaikidea. Ikuspegi horretatik, liburutegi metropolitarrak liburutegi publikoen zerbitzu eredua dira, dagokien herrialde, estatu eta eskualdeetako liburutegi sareentzat.

Liburutegi metropolitarrak beren komunitate zabalaren eskaerei erantzuteko gaitasun eta baliabide nahikoe-

kin egituratzen dira, eta arreta berezia eskaintzen diete Estatuaren ondasun eta zerbitzuetatik eta azpiegitura kulturaletatik urrun edo baztertuta dauden gizarte sektoreei. Funtsezko erakundeak dira liburutegi sistemak eraikitzeko; izan ere, bide erakusle dira beren eskualdeetan, eta beste liburutegi batzuetan berregin daitezkeen proiektu berritzaileak sortzen dituzte. Horrek komunitatearentzako zerbitzu berriak esperimentatzeko laborategi bihurtzen ditu.

Hiriko liburutegiak

São Paulo hiriko liburutegiek premisa hau proposatzen dute: irakurketa oinarrizko tresna da, herritartasuna bete-betean baliatzeko. Hori dela eta, eginkizuntzat dute eskuragarritasuna, eztabaida eta sormena sustatzea herritarren artean, oro har, eta bereziki diru sarrera txikieneko komunitateen artean nahiz zaurgarritasun egoerara dauden pertsonen artean; horretarako, oinarrizkat hartzen dituzte irakurketa, literatura eta kultura, era eta euskarri guztietan. Laburbilduz, São Pauloko liburutegi metropolitarraren ideia ahalik eta arau gutxien izatea da.

Gobernuak irabazi asmorik gabeko erakunde sozio-kultural baten esku utzi du liburutegien administrazioa: SP Leituras - Associação Paulista de Bibliotecas e Leitura. Kontinenteko beste hiri batzuetan ere ezarri dute eredu hori, adibidez Bogotan, non Fundalectura elkar-teak kudeatzen dituen gaur egun liburutegiak.

SP Leitura arduratzen da programak, proiektuak, liburutegiak eta irakurketarekin lotutako kultura zentroak planifikatzeaz, antolatzeaz, ezartzeaz eta kudeatzeaz.

Existitzen da liburutegi bat jartzeko «leku aproposena»?

Brasilgo hirietan kokatutako liburutegien bi esperientziak ezetz erakusten dute. Sarri, munduko lekurik «txarrenak» bikainak dira liburutegi onenak kokatzeko. Jarraian, bi espazio ezagutuko ditugu, lehen heriotzarekin eta miseriarekin lotzen zirenak, eta gaur egun loratuta daudenak, bertan ezarritako liburutegiei esker.

1. São Pauloko liburutegia

São Pauloko Liburutegia (BSP) dagoen lekuan, São Pauloko Atxilotze Etxea zegoen garai batean, Carandirú izenez ezaguna. Espetxeak zortzi mila preso baino gehiago zeuzkan, eta Latinoamerikako kartzela handiena zen, une hartan. 1992ko urriaren 2an, ehun eta hamaika preso hil, eta hogeita hamazazpi zauritu zituzten. Ebidentzia balistikoak erakutsi zuenez, bostehun eta hamabost bala aurkitu zituzten presoen gorpuetan; gertaera hori Brasilgo kartzeletan izandako giza eskubideen urraketa bortitzenetakotzat jotzen dute askok. Carandirúko sarraskia esaten diote.

Carandirúko kartzela 2002an desaktibatu, eta partzialki eraitsi zuten, eta Gazteen Parkea jarri zuten haren ordean. Hiria iparraldeko espazio horretan inauguratu zuten São Pauloko Liburutegia, 2010eko otsailaren 9an.

Oinarritzat hartuta Santiagoko Liburutegia (Txile) eta herrialdeko liburutegi publikoetan ezarritako praktika onenak, BSPk kulturaren eta ezagutzaren ekoizpen eta adierazpen nazionalak zein nazioartekoak komunitatearen eskura jarri ahal izateko ekipamenduak eta espazioak eskaintzen ditu. Eta, bibliotekologiako nahiz informazioaren zientzietako praktika onen laborategienez, etengabe hartzen ditu Liburutegi Publikoen Estatuko Sistemak (SisEB) antolatzen dituen hitzaldiak eta ekitaldiak, sistemako udal liburutegi publikoetako lantaldeak trebatzera bideratuak. Jarduera sozial eta kulturalen arloan erreferentea da São Pauloko estatuko bederatzehun liburutegi baino gehiagorentzat.

Alderdi sozialari dagokionez, liburutegiak duintasuna eman zien herritarrei eta auzoko biztanleei. Duela zortzi urte baino gehiago jardunean hasi zenetik, bizilagun hurbilekoenen autoestimua suspertzea eta hiriko beste leku batzuetatik etorritako jendearekin eremua dinamizatzea lortu zen. Era berean, espazioa irakurketarekin, kulturarekin eta herritarrekin lotutako praktikak esperimendatzeko erabiltzen da, eta Estatuko gaineko liburutegi publikoekin konektatuta dago, SisEBren bitartez. Haren funtzionamenduaren oinarria hipotesi simple hau da: bildumetan ardaztutako ikuspegi erabili

ordez, inguruan duen komunitatean ardaztutako ikuspegia erabiltzea.

Pertsonak eta komunitatea erdigunean jartzen dituen ikuspegia izateak zera esan nahi du:

- Ezagutza modu autonomoan eraikitzea; horretarako ezinbestekoa da espazioa eta tresnak eskaintzea, guztiek izan dezaten ezagutza berria eskuratzeko, eskaintzeko, eztabaidatzeko eta sortzeko aukera.
- Jakintzak aitortzea, hau da, bisitari bakoitzak beste pertsona batzuekin truka daitezkeen ezagutzak dituela onartzea.
- «Hitzen etxe» bilakatzea, diskurtsoak eta literatura ezagutzeko, eztabaidatzeko eta sortzeko espazioak eta materialak eskainita.
- Kulturaren plaza izatea; lotura kulturalak sustatzen dituen espazio bat eskaintzea, ingurune seguru bat, askatasuna eta aniztasuna ezaugarritzat dituen.
- «Hirugarren leku» gisa funtzionatzea, pertsonen askatasuna sustatzeko eta errespetatzeko espazioa izanik.
- Hezkuntza eskaintza etengabea aurkeztea, liburutegian bertan proba daitezkeen eredu berrien zirkulu bertutetsua sortzeko.

Hala, liburutegiko erabiltzaile den Rebecak adierazten duen moduan, garai batean heriotza eta basakeria egon

ziren lekuan, bere komunitateari garapen espazio seguru, aske eta plural bat eskaintzen dion liburutegia dago gaur egun:

Liburutegia gizarte inklusiorako espazioa da, harremanak eraikitzeko lekua. Topalekua da. Hemen ez naute inoiz diskriminatu. Beti errespetatu naute, eta beti egin didate harrera oso ona. Leku honek norbere buruarekin berriz konektatzeko aukera ematen du, perspektiba berriak lortzekoa. Berregituratzeko lekua da. Abiapuntua. Oso eskertuta nago ingurune hau daukadalako, nire bizitzan duen esanahiagatik. Bikaina izango litzateke mundu guztiak eskura izatea horrelako lekuak.

2. Villa-Lobos Parkeko Liburutegia

Hainbat hamarkadatan São Pauloko biltegiatze enpresa baten zabortegia izan zena parke gisa inauguratu zuten 1994an. Heitor Villa-Lobos izena jarri zioten, konpositore brasildarraren omenez. Villa-Lobos parkea hiri eremu narriatuak berritzeko prozesuen erreferente bihurtu da. Espazio publiko horrek era askotako aisia, kirol eta kultura jarduerak biltzen ditu, eta asko du proposamen jasangarri eta ekologikotik.

2015eko urtarrilean, proposamen horrexek bultzatuta, Villa-Lobos Parkeko Liburutegiak (BVL) parkean integratutako jardueri ekin zien, eta, pixkanaka, espazioaren eta ingurunearen eraldaketa eta dinamizazioa

indartu zituen, liburutegi proposamen berritzaile baten bidez. Emaitzarik baloratuena ikuspegi berrituak dituzten herritarrak garatzea da, bisitari berriak izatea baino gehiago. Garai batean mila pertsona inguru egunero janari hondarrak eta bestelako hondakinak biltzen ibiltzen ziren lekuan, ezagutza eta kultura eskuratzeko eta hainbat jardueraren bidez beren komunitatearekin konektatzeko gogoia duten milaka brasildar ibiltzen dira gaur egun.

BVL erreferentea da espazio publikoen berritzean; izan ere, gizarte harrotasuna berrezarri du herritarrengan, eta hiriko kultura ondasun baten eta parke baten arteko integrazioa sustatzen du.

Aisiarako eta kulturarako doako guneak nahi zituzten familiengan pentsatuz eraiki ziren parkea eta liburutegia. Arreta berezia eskaini zieten gazteei eta inguruko jendegune pobreeneko biztanleei, bertan ez baitzegoen kultur gune handirik BVL inauguratu zen arte.

BVLren bereizgarria tokiko komunitateari eskaintzen dizkion zerbitzuen eta programen aniztasuna da; horiek irakurketaren eta ezagutzaren bidez konektatzeko aukerak dakartzate, gainera. Liburutegiak liburu, multimedia, jostailu, joko tradizional eta bideo-jokoen bilduma zabala du, eta materialak astero eguneratzen dira, doan. Lau mila metro pasatxoko azaleran antolatuta dago dena. Halaber, urtean bederatziehun ekitaldi baino gehiago biltzen dituen kultura programa dauka, eta ekitaldi horien helburua komunitateko milioika pertsonen bizi kalitatea hobetzea da.

Irakurketa, kultura eta ezagutza jendearen eskura jartzea ez ezik, beste xede bat ere badute liburutegiko ekintzek eta zerbitzuek; hots, eztabaida eta sormen jarduerak sustatzea. Ekimen horien artean honako hauek nabarmentzen dira: adinekoentzat trebakuntza saioak antolatzea, telefono adimenduna edo smartphonea eta gailu digitalak erabiltzen ikas-teko; eremu periferikoetako musika taldeei espazioa uztea; guraso eta tutoreei haur txikiekin irakurtzen laguntzea; yoga egiteko aukera ematea; atzerriko hizkuntzen doako eskolak antolatzea; sukaldaritza tailer entretenigarriak egitea, baita haur nahiz helduentzako literatura tailerrak ere; irakurketa klubak antolatzea; testuak, liburuak eta bideoak ekoizteko tailerrak eskaintzea; zinema saioak antolatzea, eta dozenaka jarduera erakargarri gehiago eskaintzea. Era berean, liburutegiak edukia sortzen duten enpresekin edo gizarte nahiz ingurumen arloetako ekimenekin elkarlanean aritzeko programa bat gauzatzen du.

BVL liburutegiak bere komunitateko giza garapenari egin diezaiokeen ekarpenaren adibide da, adin guztietarako programak antolatzen baititu, eta horrek berekin baitakar kapital soziala, kulturala, digitala eta ekonomikoa areagotzea. Liburutegiko programa guztiek laguntzen diote komunitatearen garapenari, bizitza sozioekonomikoaren arlo guztietako erabiltzaileak dituelako, bereziki; era berean, ekimen horien helburua komunitateko kide guztien beharrak asetzea da. Liburutegiaren erabiltzaile den Danielek honela azaltzen du:

Funtsezkoa da coworking espazio bat edukitzea, atea irekitzen baititu. Are gehiago, itxaropena pizten du jendearengan. Gizarteari ekarpen interesgarriak egiten laguntzen die, bai hemen bizi direnei, baita hona etortzen direnei ere. Egiaz da mundu guztiarentzako liburutegi publiko bat, adin guztietako jendearentzako leku bat. Jakintza ez da soilik liburuak irakurtzea. Lana partekatzea ere bada. Horixe da ideia. Eta hau leku ezin hobea da horretarako.

Sareak ehuntzen dituzten liburutegiak: Guatemalako liburutegi sarea

Erdialdeko Amerikan, desorekatua izan da liburutegien garapena, eta, kasu askotan, ez da izan behar bestekoa. Seguru asko, diktadura eta gerra zibilen ondorioz jasandako indarkeriak eragin du egoera hori, baita eskualdeko pobrezia eta desperekotasunak ere, zeinaren ondorioz baita kontinente amerikarreko eremurik gatazkatsuena, eta gabezia handienekoa.

Hamarkada luzez herrialde gehienetan gatazka militarra izan ondoren, Erdialdeko Amerika gerra kulturatik bake kulturara eboluzionatzen ari da, eta bake kultura-

tik kultura demokratikora, horren bidez giza garapen jasagarria handitzeko eta hobetzeko asmoz.

Guatemalako testuinguru kulturalak ezaugarritzat ditu kultura aniztasuna, etnia aniztasuna eta hizkuntza aniztasuna. Kultura aniztasuna, herrialdeko lau herrietako bakoitzak nortasun propioa ematen dioten kultura adierazpenak eta mundu ikuskera dituelako. Etnia aniztasuna, hogeita bost etnia daudelako: jatorri maiako hogeita bi, garifuna bat, xinka bat eta beste bat mestizoa edo ladinoa. Hizkuntza aniztasuna, gaztelania hizkuntza komuna izan arren, lurralde nazionalean hogeita bost hizkuntza hitz egiten direlako, aniztasun etnikoarekin bat datozenak. Liburuaren, irakurketaren eta liburutegien ekosistema testuinguru aberats horretan garatzen da.

Guatemalan, liburutegi publikoen sorrerak lotura izan du bake akordioak sinatzearekin; izan ere, liburutegiek hezkuntzaren hobekuntza, biztanleriaren alfabetatzea eta desarme prozesuaren babesa ekarri dituzte. Nahiz eta ez dagoen liburutegi publikoen sorrera sustatzen duen politika publikorik, udal bakoitzak bere liburutegia izan behar duela adierazten du legedi batek. Eta liburutegi publikoen sistema sendorik ez badago ere, irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuen eta komunitarioen garapena sustatu da, liburutegiak hezkuntzarako espazio gisa eta garapen eragile gisa ezartzeko.

Guatemalak lankidetzat, garapen komunitarioa eta sareko lana aukeratu ditu liburutegiak garatzeko, eta bide

horrek, gabeziak dituen arren, lan jasangarriaren eta liburutegi sistemen eraikuntzaren eredu bat egituratzen du, hirugarren munduko herrialdeentzat berregingarria.

Lankidetza

2000. urtean, Riecken Fundazioa lanean hasi zen Hondurasen eta Guatemalan. Irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta xedetzat du «Erdialdeko Amerikako komunitateetan demokrazia eta oparotasuna sustatzea, ezagutza eta partaidetza sozial komunitarioa piztuko dituzten gizarte eta hezkuntza erakundeen bidez». Eta, fundazio horren esku hartzearen esparruan, liburutegi komunitarioak jo ziren horretarako bide idealtzat. Hala bada, liburutegi horiek ardatz hauek lantzen dituzte:

- Gozamen hutsagatiko irakurketarako motibazioa.
- Informazioaren eskuragarritasuna eta autoikasuntza.
- Gazteen lidergoa.
- Informazioaren teknologia eskura izatea.
- Ekintza eta partaidetza soziala.
- Kultura aniztasuna.

Liburutegiak lankidetza eredu baten arabera egituratu dira, eta bertan komunitateak, udalerrriak eta Riecken Fundazioak parte hartzen dute. Horri esker, liburutegien

sarea indartu egin da, liburutegiek gizartean betetzen dituzten funtzioetatik abiatuta.

- Komunitatearentzako topalekuak dira.
- Ezagutza eta kultura sortzeko lekuak dira.
- Komunikaziorako eta lankidetzarako espazioak dira.
- Herritarren formakuntzarako espazioak dira.

«Tejiendo Sabiduría» sarearen sorrera

Liburutegien artean harremanak sortzen joateko asmoz, sareko lana indartu da, eta, horri esker, liburutegi berritzaileen elkarte bat sortu ahal izan da, «Tejiendo Sabiduría» (Jakinduria ehuntzen) izeneko egitura asoziatibo bat, liburutegietako zuzendaritza batzordeetako kideek osatua. Elkarte horrek liburutegien eskubide eta interes komunak ordezkatu, sustatu eta defendatu nahi ditu tokiko gobernuen eta bestelako instantzien aurrean, eta liburutegi komunitarioen jasangarritasuna indartu nahi du. 2016. urtearen amaieran, Guatemalako Estatuak elkarte zibil gisa legezko onespena eman zion liburutegi sareari, liburutegi komunitarioen autorregulazioa eta printzipio etikoak bermatze aldera.

Taula honetan, Guatemalako sarea osatzen duten oinarri komunitarioko liburutegi publikoak aipatzen dira.

Liburutegi komunitarioa	Udalerrria, departamentua	Inaugurazioa	Biztanleria
Rija'tzuul Na'ooj (Jakinduriaren hazia)	San Juan La Laguna, Sololá	2005eko otsailaren 5a	Tz'utujil
Ventanas abiertas al futuro (Etorkizunera irekitako leihoak)	Chiche', Quiché	2005eko apirilaren 3a	K'iche'
K'ak' No'jib'al (Ezagutza berria)	Cantón Xolsacmalía, Totonicapán	2009ko martxoaren 26a	K'iche'
Nuevo Amanecer (Egunsenti berria)	Cabricán, Quetzaltenango	2004ko uztailaren 21a	Mam
Mi Nuevo Mundo (Nire mundu berria)	Huitán, Quetzaltenango	2009ko martxoaren 25a	Mam

Fuente de Sabiduría (Jakinduria iturria)	San Carlos Sija, Quetzaltenango	2007ko apirilaren 25a	W
La Libertad (Askatasuna)	Morales, Izabal	2002ko otsailaren 15a	Ladinoa
Una luz para el futuro (Etorkizunera- rako argia)	Río Blanco, San Marcos	2007ko martxoaren 7a	Mam
Gabriela Mistral	San Juan Chamelco, Alta Verapaz	2003ko urtarrilaren 15a	Q'eqchi'
Técnica Popular Riecken (Riecken teknika ezaguna)	Tajumulco, San Marcos	2002ko otsailaren 17a	Mam
Mundo del saber (Jakintzaren mundua)	Parramos, Chimaltenango	2014ko otsailaren 24a	Kaqchikel

Iturria: Riecken Fundazioa

Garapen komunitarioa

Oinarri komunitarioko liburutegi publiko guztiek ardatz komunak bultzatzen dituzte lanerako; hala ere, horietako bakoitzak bere komunitatearen beharrekin bat datozen proiektu eta zerbitzuak sustatzen ditu, garapen sozialeko prozesuak beretuz:

- Ekintzailtza eta negoziak: liburutegi komunitarioek ekintzailtza sozialeko tokiko ekimenak (diru sarreren sorrera, osasunaren sustapena, alfabetatzea, eragin politikoa, etab.) sustatzen dituzte, Guatemalako landa komunitateetan emakumeen giza gaitasunak, antolakuntzazkoak eta sozialak indartzeko asmoz. Ekimen horien helburua emakumeak ahalduntzea da.
- Gazteen lidergoaren garapena: liburutegiek nerabeen sormena eta pentsamendu kritikoa indartzen dituzte; izan ere, funtsezko elementuak dira etorkizuneko herritarrak gai izan daitezen teoriak zalantzan jartzeko eta mundu hobeko baterako ideiak proposatzeko.
- Irakurketarako estimulazio goiztiarra eta elikadura: “Ventanas abiertas al futuro” liburutegi komunitarioak irakurketarako estimulazio goiztiarreko programa bat zuzentzen du; programa horrek elikadurari ere erreparatzen dio, eta era askotako esperientziak eskaintzen dizkie

haurrei, ahalik eta gehien gara ditzaten gaitasun fisikoak eta psikologikoak.

- Irakurketako eta hezkuntza publikoko bitartekotza: liburuzainen, irakasleen eta irakurketa sustatzaileen gaitasunak indartzeko programa bat sustatzen da liburutegietan, oinarritzko hezkuntzako lehen mailatik seigarren mailara arte gaztelaniaren estandarren erabilera bultzatzeko, irakurketan bitartekotza lana eginez.
- Kultura identitatea: zenbait ekimen sustatzen dira, hala nola «Descubriendo nuestras tradiciones a través de los relatos ancestrales» (Antzinako kontakizunen bidez gure tradizioak ezagutzeari) izenekoak, komunitateetan ahozko tradizioa berreskuratzea helburu duena. Tokiko identitatean oinarritutako jardueren helburu nagusia komunitateetan maien kultura edo bertako kultura indartzea, salbatzea eta sustatzea da.
- Baliabide kultural, natural eta arkeologikoen mapaketa: ekimen honek helburutzat du komunitateak leku sakratuak eta baliabide naturalak zaintzearen garrantziaz sentsibilizatzea; horretarako, ezagutza historikoa eta kulturala sustatzen ditu. Hainbat haur, gazte eta heldu talde GPS teknologiaren erabileran trebatu dira, eta, horri esker, komunitate bakoitzeko baliabide natural, sakratu eta arkeologikoetan oinarritutako mapaketa komunitarioak egin dituzte.

*Ezagutza gorde,
sortu eta berregiten den lekua:
Kankuaka Liburutegi Komunitarioa,
Kolonbian*

Liburutegi komunitarioak gizartearen eta kulturaren garapenerako funtsezko faktoreak izan dira Latinoamerikan. Horrelako liburutegiak komunitateen ekimenari eta antolakuntzari esker sortu dira; askotan ez dute jaso gobernuen babesik, eta funts propioen bidez eutsi behar izan diote. Ondorioz, komunitate horietako kideen behar eta eskaera premiazkoenen adierazpen zehatz bihurtu dira askotan. Azken batean, haurren hezkuntzari laguntzen dioten liburutegiak dira, inguruko ingurumen arazoei erantzuten dietenak, emakumearen eskubideak defendatzen dituztenak eta herritarren hobekuntza ekonomikorako praktika jasagarriak sortzen dituztenak.

Espazio horietako asko berrikuntzaren, ahalduztze komunitarioaren eta aldaketa sozialaren adibideak dira. Nonahi daude halakoak: Oaxacako Mendilerroan, Mexikon; Honduras eta Guatemalako eremu indigenetan; Cajamaracako landa eremuetan, Perun; Argentinako hiri edo herrialde bakoitzean; Amazoniaren bihotzean, Brasilen.

Hortaz, liburutegi komunitarioak oinarrizko zerbitzua dira, komunitatearen neurrira egindako elementuak. Eta mundua ulertzeko modu bat ere badira.

Santa Marta

Nazio Batuetako zientzialarien iritziz, planetako ingurune natural paregabeen artean dago Kolonbiako Sierra Nevada de Santa Marta. Horren ondorioz, UNESCOk Biosferaren Erreserba eta Gizateriaren Ondare izendatu zuen 1979an. Hainbat eta hainbat bizi forma daude bertako ekosisteman, eta bertan bizi dira zenbait komunitate indigena, Sierra Nevadako mendiak sakratutzat dituztenak.

Gaur egun, ordea, ehun eskaeratik gora daude eremu horretan eskala handiko erauzketak gauzatzeko. Horrek, ezbairik gabe, erabat aldatuko lituzke bertako klima eta ekosistema. Interes ekonomiko horiez gain, eskualdeko bizikidetzari eta kultura indigenei eraso egiten dieten eragile armatuak agertu dira, eta komunitate indigena horiek sarraskiak, desplazamenduak eta buruzagien hilketak jasan dituzte. Ingurune horretan dago Kankuaka Liburutegi Publikoa, Kankuamoen Babesleku Indigenaren barruan.

1. Kankuaka Liburutegi Publikoa

Kankuaka hitzak «ezagutza gorde, sortu eta berregiten den lekua» esan nahi du.

Kankuamoen kulturaren, liburutegi nozioa ez da berria; aitzitik, lurraldeari lotuta dago. Bertako liburuzainek diotenez, liburutegiak memoriaren kodea gordetzen duten lekuak dira, oroitzapenen eta berregiteen gordelekuak; baina oroitzapen eta berregite horiek ez dira iraganeko elementutzat hartzen, orainaren partetzat baizik.

Kankuamoen kulturaren, irakurtzeak lotura du usainekin, zaporeekin, lurrarekiko lotura sentitzearekin, ereitearekin, inguruko elementu bakoitzarekiko komunikazioarekin, naturarekiko lotura sakonarekin, lurraldekide duten izakietako bakoitzaren bizimodua ulertzearekin. Eta lotura du, halaber, idaztearekin, pentsatzearekin eta inguruko elementuak behatzearekin. Horregatik, Kankuaka Liburutegiak liburuak eta ingurunea sustatu ditu, aldi berean.

Testuinguru horretan, irakurketari, idazketari, hezkuntzari eta kulturari begira dituzten zeregin tradizionalen gain, liburutegiek beste proiektu teknologiko batzuk ere gauzatu dituzte, Kankuaka munduarekin konektatzea ahalbidetu dutenak; horiei esker, Kolonbiako liburutegi onenetako bat izatea lortu du.

Liburutegiaren zerbitzu nagusien artetik, honako hauek nabarmentzen dira:

Kanduruma-lab «Aprender en el hacer de la comunidad» (Komunitatearen jardunetik ikastea): liburutegi ireki eta konektatuaren ideia erabiltzen duen sor-

men laborategia, non jakintza, jakin-mina eta jarduna liburutegiko lau paretetatik ateratzen diren, haur eta gazteekin batera. Ideiak, jokoak eta proiektuak partekatzeke maker space bat da. Gero, ekimen sortzaileak garatzen dira, hiru ardatzetatik abiatuta: hedabideak (idatziak eta ikus-entzunezkoak), artea eta kultura, eta ingurumena. Erdietsitako lorpenak tarteko, ekimen honek berrikuntzaren EIFL saria jaso zuen. Liburuzainen gidaritzapean, haurrak komunitatera irteten dira informazio bila. Adinekoak elkarrizketatzen dituzte; argazkiak nahiz objektu tradizionalak biltzen dituzte, eta herriko bizitzako nahiz ingurumeneko eszenak atzematen dituzte argazkien eta bideoen bidez. Liburutegira itzulita, istorioak idatzi, erakusketak prestatu eta komunitateko mapak marrazten dituzte. Ekimenaren izenak bertako tradizio batean du jatorria. Topaketen datak ezin dira errutinari begiratuta finkatu, mendilerroko denboren arabekoak direlako, eta, ondorioz, norbaitek Kanduruma aipatu zuen, agerpen bat, komunitatearen inguruan ibiltzen den espiritu bat. Hortik abiatuta jaio zen El guardián de la Sierra (Sierrako zaindaria) izeneko film laburra, oporraldian Kankuaka Liburutegian sortutako lana, haurrek egiten dutenaren erakuslea. «Ekimenak belaunaldien arteko loturak indartu ditu. Belaunaldi desberdinetako jendea ezagutzak partekatzen ari da, komunitatea nola garatu eta ekosistema handi hau nola babestu ikasteko», azaltzen

du Souldes Maestre Monterok, liburutegiko buruak. 2020an zehar, komunitateko helduen gidaritzapean eta jatorrira itzultzeko asmoz, Kanduruma-lab ekimenak beste etapa bati ekin zion, adinekoen mezua indartzeko. Pandemian, bideoak eta podcast bat sortu, eta hogeita hamar etxeko baratze jarri zituzten. Komunitatearen ahozkotasanak, istorioek eta sormenak urruntze fisikoaren mugak gainditu zituzten.

«Chaskis, Postales del Territorio» (Chaskis herria: lurraldeko postalak): lan hau Kankuamoen Babesleku Indigenako gazteek eta haurrek egindako ikus-entzuzko praktiken eta laborategien emaitza da, haiek sortua eta ekitozia. Kankuamoen Babesleku Indigenako haur eta gazteek eta inguruetakoko laguntxoek beren sorterriari buruzko bideoak sortu, eta esperientziak trukatu zituzten.

«Para el mundo, Leyendas Vivientes» (Munduarentzat, kondaira bizidunak): belaunaldi arteko eta nazioarteko proiektua, non interakzioan dauden ahozko kultura eta kultura digitala. Latinoamerikako eta Europako aitona-amonek gordetako ahozko tradizioa biltzea eta irudiztatzea du ardatz, eta gazteek berreskuratzen dute, trebakuntza ibiltarrietan lortutako animazio teknikak erabiliz. Gainera, irakasleek eta gazteek doan deskarga dezaketan eskuliburu bat garatu da, esperientzia mundu osoan barrena berregin ahal izateko.

Kankuamo Gazteen Batzordea: Kankuaka Liburutegi Publikoaren laguntzarekin, non gazteek alfabetatze mediatikoari buruzko hezkuntza jasotzen duten, baita ingurumenari eta kankuamoen kulturari buruzko kontzientziazioa ere, ikus-entzunezko zenbait ekoizpen garatzen ari dira, helburutzat dutenak indigenen eskubideak, lurraren babes, elikadura burujabetza eta tokiko ekosistema errespetatzen duen bizimodua sustatzea. Tailer horri esker, Radio Tayrona Estéreo irradian emango dituzten bost irratsaio sortuko dituzte, baita bideo labur bat ere, eta gazte ekintzetarako blog bat eta podcast kanal bat. Era berean, alfabetatze mediatikoan trebatuko dira Sierra Nevada de Santa Martan bizi diren lauhun gazte baino gehiago.

Hau ez da ohiko liburutegi bat

«Liburutegia itxita egoteak (COVID-19aren ondorioz) ez du ezertan aldatzen haurren jarrera, haiekin egiten dugun lanak berdin jarraitzen baitu», dio Souldes Maestre liburuzainak, zeinak azaldu baitu kankuamoentzat liburutegia ez dela espazio fisiko bat.

2020ko uztailean *El Herald*o egunkariari emandako elkarrizketa batean, Maestrek azaltzen du haur guztiek ortua dutela etxean. Hurrek beren lurrari begira hartua duten konpromisoa da ereiten duten bitartean

beren historia kontatzea. Ideia zera da, haurrek adinekoengana jotzea eta familiako jakintzetatik ikastea. Aitonak garai batean nola ereiten zen kontatzen du, nola lantzen zuten hazia, nola zaindu behar diren landare desberdinak, ilargiaren zer etapatan erein behar den... Era horretara, gure kultura berreskuratzen dugu baratzearen bitartez.

Irakurle birtualak, komunitate errealak, Txileko Liburutegi Publiko Digitala

Gaur egun, Txileko liburutegi publikoak dira estatuko kultura sare nagusia, bai estaldura geografikoari dagokionez, baita erabiltzaile kopuruari eta eskaintako zerbitzuei dagokienez ere. Izan ere, herrialdeko udalen ia % 97k dute liburutegia.

Txileko liburutegi zerbitzuek barne hartzen dituzte bostehun liburutegi publiko baino gehiago, hirurogeita hamar mailegu puntu, berrogeita hamar zerbitzu mugikor eta hirurogeita hamaika liburutegi espetxeetan, eta

udalen menpe daude, nagusiki. Altzariak, langileak eta eragiketetarako nahiz mantentze lanetarako baliabide finantzarioak udalerriek hornitzen dituzte.

Liburutegi Publikoen Sistema Nazionala

Txilen, liburutegien garapena koordinatzeaz eta horretarako jarraibideak emateaz arduratzen den estatu erakundea Liburutegi Publikoen Sistema Nazionala (SNBP) da, Kultura, Arte eta Ondare Ministerioko Kultura Ondarearen Zerbitzu Nazionalaren mende dagoena. Tokiko gobernuek hitzarmen bat sinatzen dute SNBPrekin, eta, horren arabera, SNBpk honako hauetan lagundu behar die liburutegiei:

- Bilduma bibliografikoak komodatuan uzten.
- Liburutegi publikoak kudeatzeko arauen eta estandarren gaineko aholkularitza teknikoa ematen.
- Liburutegietako langileak trebatzen eta prestatzen.
- Irakurketa Plan Nazionala ezartzen.
- Liburutegietarako proiektu eta programa berri-tzaileak ezartzen eta garatzen.

Eredu komunitarioa eta zerbitzuetakoa

Liburutegi publikoen eredia tokiko gobernuen eta administrazio zentralaren erakunde baten arteko alian-

tzan oinarritzen da. Erakunde horrek liburutegien garapen integrala sustatzen du, eta bermatu egin nahi du herritar guztiek eskuragarri izango dituztela liburuak, irakurketa eta kultura, edozein dela ere haien kokapen geografikoa, generoa, adina, maila sozioekonomikoa eta hezkuntzakoa, arraza edo kredoak.

Txileko liburutegi publikoek azken hogeitun urteotan izan duten hazkundea hiru ardatzetan oinarritzen da: integrazio komunitarioa, zerbitzuen modernizazioa eta langileen indartzea.

SNBPK eskualde mailako hamasei koordinakunde ditu, tokiko gobernuekin erlazionatuak. Era berean, eskualdeko sei liburutegi ditu (Antofagasta, Atakama, Coquimbo, Valparaíso, Metropolitana eta Aysén) eta eraikitzen ari diren bost proiektu (Arica eta Parinacota, Araucania, Los Ríos, Los Lagos eta Magallanes).

Herrialdean eta kanpoan arrakasta eta aintzatespen handiena izan duten SNBPren ekimen berritzaileen artean, honako hauek aipa ditzakegu:

- Metroko liburutegia edo bibliometroa: liburuak mailegatzeko zenbait puntu jarri dituzte Santiagoko metro sarean. Ekimen hori, 1996an Txilen jaioa, zenbait herrialdetara «esportatu» dute.
- Liburutegi Publiko Digitala: bere arloan berritzailea, herrialdeko biztanle guztiek eta atzerrian dauden txiletarrek erabil dezaketen liburutegia da.

- «Jovenes Programadores» (Gazte programatzaileak): gazteak programazio digitalera hurbiltzeko ekimena da; izan ere, tresna horrek ahalduntzean eta norberaren nahiz komunitatearen garapenean laguntzen du. Proiektu honek Fundación Ciencia Joven fundazioak eta UNESCOk ematen duten Hezkuntza Zientifikoko Berrikuntzaren Urteko Saria jaso zuen 2015ean, IKTen kategorian.

Txilen alfabetatze informazionala nahiz digitala eta oinarrizko gaitasunen alfabetatzea lortzeko garatu den programarik zabalena eta intentsiboena liburutegi publikoetatik egin da, «Biblioredes» izeneko programa baten bidez. Helburua zera da, liburutegi publikoak espazio eraginkorrak izatea, eten digitalari aurre egiteko, komunitatea alfabetatzeko eta herritarrek sozialki, politikoki eta produktiboki ahalduntzen dituzten tresnak emateko.

Aldi berean, kultura zabaltzeko programa bizia egiten da: «Bibliotecas son más que libros» (Liburutegiak liburuak baino gehiago dira). Liburutegi publikoek herrialdeko kultura sare handiena osatzen dutenez, programa horren helburua da haien lana babestea eta sustatzea, berariaz horretarako garatutako arte jardueren bidez; era berean, kultura jarduerak sustatzea, eskaintako zerbitzuen matrizea dibertsifikatzea, audientzia berriak sortzea eta liburuen mailegua indartzea lortu nahi du. Azken batean, antzerkia, dantza, musika, poe-

sia, eztabaida politikoa, erakusketak eta tailerrak dira programa horretan gauzatzen diren ekintzetako batzuk.

Txileko liburutegi publikoen eragina honela laburbil liteke:

- Gaur egun, irakurketa eta liburu zein aldizkariak maileguan doan eskuratzeko sare publiko handiena osatzen dute, baita komunitate osoari irekitako Interneteko sarbide nagusia ere, zortzi milioi inguru bilduma bibliografikorekin eta hiru mila ordenagailu baino gehiagorekin.
- Liburutegi publikoen erabiltzaileen % 82 pobrezia atalasetik behera bizi dira.
- Herrialdeko hiru udaletik batean, liburutegi publikoa da Internet doan erabiltzeko leku bakarra.
- Liburutegiek hamabi milioi bisita baino gehiago jasotzen dituzte urtean.
- Irakurketa Plan Nazionalaren helburuen % 65 liburutegi publikoetan erdiesten dira.
- Bi milioitik gora pertsonari eman zaie zerbitzua, eta Interneten sartzeko hamaika mila saio baino gehiago egiten dira egunero.
- Bostehun mila pertsonak garatu dituzte beren gaitasun digitalak liburutegiek eskaintzen dituzten ikastaroen bidez. Ikastaro horiek % 45eko ekarpena egiten diete Txileko Gobernuaren alfabetatze digitalerako helburuei.

- Urtero hamabost mila pertsona baino gehiago trebatzen dira e-learning bidez.
- Erabiltzaileek hamabi mila webgune baino gehiago sortu dituzte tokiko edukiekin, Contenidos Locales atariaren bidez, zeinak Stockholm Challenge Award saria jaso baitzuen 2006an, kulturako kategorian.

Liburutegi Publiko Digitala

Zer da liburutegi digital bat? Liburutegi digitalen ekimenei buruzko artikulu batean, non aipatzen duen Santa Fe Workshop on Distributed Knowledge Work Environments, Stephen M. Griffinek (1998) honako hau dio gaiaz:

liburutegi digitalaren kontzeptua ez da soilik informazioa kudeatzeko metodoen bidez digitalizatutako katalogoen baliokidea. Hori baino gehiago, bildumak, zerbitzuak eta langileak biltzen dituen ingurune bat da, informaziorako eta ezagutzarako datuak sortzeko, zabaltzeko, erabiltzeko eta gordetzeko ziklo osoa errazten duena. (24. or.)

Txileko Liburutegi Publiko Digitala (BPDigital) Liburutegi Publikoen Sistema Nazionalak garatutako ekimena da. Web plataforma baten bidez eta Android zein

iOS sistema eragileetarako aplikazio mugikor baten bidez, irakurleek doan eskura ditzakete ia berrogei mila liburu digital eta audio-liburu, ingelesezkoak eta gaztelaniazkoak, era guztietako publikoarentzat: haur, gazte zein heldu. Erregistroa automatikoa da, eta indarrean dagoen identifikazio txartela baino ez da behar edozein liburu maileguan eskatu, eta ordenagailu, tableta edo smartphone batean irakurtzen hasteko.

Liburutegi hau 2013aren amaieran sortu zen, ordenagailu edo gailu mugikorretan deskargatuta liburu digitalak mailegatzeko online plataforma gisa. Bitarteko horietan ere irakur daiteke, eta sinkronizatu egin daitezke; adibidez, irakurle batek gauean tabletan irakurri badu, hurrengo egunean garraio publikoan dagoen bitartean telefonoan irakur dezake, orrialde beretik hasita.

Zerbitzua Txileko biztanle guztiek doan erabil dezakete, bereizketarik gabe, eta, beraz, etorkinentzat ere eskuragarri dago; atzerrian bizi diren txiletarrak ere sar daitezke. Plataformaren erabilera errazteko, aplikazio bat dago (BPDigital), erabiltzaileak edozein gailutatik sartu ahal izateko liburueta, baita telefono mugikorretik ere. Gaur egun, gailu mugikorretara —tabletak edo smartphoneak— egindako deskargak irakurketa guztien % 89 dira.

Ikus daitekeenez, liburutegiaren mailegu indizeak nabarmen handitzen ari dira:

Urtea	2013 (bi hilabete)	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Urteko maileguak	727	4.370	13.330	113.575	134.819	301.427	393.890	573.949
Hazkundera		% 501	% 205	% 752	% 19	% 124	% 31	% 46

Iturria: Liburutegi Publiko Digitala

Hazkunde tasa horri esker, seigarren urtean, Txilen liburu gehien mailegatzten dituen liburutegi publikoa bihurtu da, material bibliografikoa erosteko aurrekontu mugatua izan arren.

Emaitzei esker, BPDigital-ek hedapen handi samarra izan du telebistan eta prentsa idatzian, eta hiru aintzatespen nazional oso garrantzitsu jaso ditu:

- 2016ko Berrikuntzako Avonni Sari Nazionala, herrialdeko zenbait erakunde publikok eta pribatuk ematen dutena.
- 2017ko Alonso de Ercilla saria, Txileko Hizkuntza Akademiarena, literatura txiletarraren ezagutzan eta hedapenean lagundu duten pertsona zein erakundeei ematen zaiena.

- Funciona Berrikuntza Publikoko Lehiaketako lehen saria, 2019an.

Liburutegi publiko tradizionala edo liburutegi publiko digitala?

Hona iritsita, eztabaida horri buruzko ideia batzuk azaldu behar dira. Pentsa liteke liburutegi publiko digitalak ordeztu egiten duela liburutegi publiko tradizionala, herrialde osoko auzo eta udalerrietan dagoen liburutegia. Izan ere, liburutegi publiko digitala lurraldeko biztanle gehienengana irits daiteke ordenagailuen edo gailu mugikorren bidez, eta bilduma bibliografiko zabalak jar dezake haien eskura, udal liburutegietara joan beharrik gabe.

Egia al da dilema hori? Neurri batean bai. Liburutegi tradizionala paperezko liburuak mailegatzera mugatzen bada, irakurle potentzialen etxeetatik urrun badago eta ordutegi mugatueta funtzionatzen badu, oso litekeena da liburutegi digitala aukera hobea izatea: asteko zazpi egunetan dago irekita, eta udal liburutegi publiko batek dituen liburu ia berberak ditu.

Baina gaur egun liburutegi publikoak beste zerbait dira. UNESCOren Manifestuak dioten moduan, liburutegiak honako zeregin hauek bete behar ditu, besteak beste:

- Haurren artean irakurtzeko ohiturak sortu eta indartu behar ditu, txiki-txikitatik.
- Hezkuntza indibidualean nahiz autodidaktan lagundu behar du, baita maila guztietako hezkuntza formalean ere.
- Sormenaren garapen pertsonalerako aukerak eskaini behar ditu.
- Haur eta gazteen irudimena eta sormena estimulatu behar ditu.
- Kultura ondarearen ezagutza, arteen balioespena eta lorpen nahiz berrikuntza zientifikoaren aintzatespena sustatu behar ditu.
- Sorkuntza artistiko guztien adierazpen kulturalak ezagutzeko aukera eman behar du.
- Kulturen arteko elkarrizketa sustatu behar du, eta kultura aniztasuna bultzatu.
- Ahozko tradizioa babestu behar du.
- Komunitateko informazio mota oro eskuratzeko aukera bermatu behar die herritarrei.
- Informazio zerbitzu egokiak eman behar dizkie tokiko enpresei eta elkartei.
- Informazioaren erabileran aurrerabidea erraztu behar du, bitarteko informatikoen bidez.

- Adin talde guztientzako alfabetatze programak eta jarduerak babestu behar ditu, eta horietan parte hartu behar du, baita martxan jarri ere, beharrezkoa izanez gero.

Liburutegi digital bat edukita lor daiteke hori guztia? Seguru asko ez. Izan ere, parte hartzea da elementu oinarrizkoena. Liburutegi publikoa eta antzeko erakundeak komunitateak berak kudeatuta sortzen dira, CERLALCek argitaratutako *Guía para el estudio de usuarios y de la comunidad en bibliotecas públicas* lanean proposatzen den moduan (Chiuminatto, Lipeikaite eta Oyarzún, 2018). Horrenbestez, ezinbestekoa izango da ondo ezagutu eta ulertzea komunitatea eta haren lurraldea, komunitateko eragile nagusiak eta erabiltzaileei eta haien beharrei buruzko informazioa biltzeko tresnak. Horretarako, ezinbestekoa da geure burua eta besteak ezagutzea, komunitateko elkarteetan parte hartzea, parte hartzen ez dutenak gonbidatzea eta zerbitzuak komunitatearekin batera diseinatzea.

Horren haritik, bitartekaritza eta dinamizazioa funtsezko arloak dira, liburutegi publikoak arrakasta izan dezan espazio fisiko gisa. Horretarako, jendearekin zuzenean lan egiten duten pertsonen gaitasunak indartu behar dira, etengabeko prestakuntza programa baten bidez, zeinaren helburua izango baita beharrezko trebetasunak, gaitasunak eta lidergoa sortzen laguntzea, programa kulturala zer herritarako planteatzen eta proposatzen den kontuan hartuta.

Ikuspegi horretatik, liburutegi publiko digitala funtsezko tresna da komunitateen informazio beharrak aseko dituzten alternatibak eraikitzeko, eta, zerbitzu presentzialak ordeztu baino gehiago, osatu eta aberastu egin ditzake.

LIBURUTEGI IMAJINATUA

Liburutegi imajinatuak komunitateekin batera lan egiten du, eta garapenerako aukerak eskaintzen ditu ekonomiaren, gizartearen, kulturaren eta hezkuntzaren arloetan, baita osasunarenean ere. Pertsoneri garapen aukerak identifikatzen eta aprobetxatzen, eta gaitasun berriak barneratzen laguntzen dien plataforma da; era berean, gizarteko beste kide eta elkarte batzuekin lankidetzan aritzen da, lotura komunitarioak indartzeko.

Liburutegi imajinatuak zerbitzu integralak ematen ditu; alfabetatu eta hezi egiten du; tokiko ondarea berreskuratzen du; sareak elkartu eta sortzen ditu, herritarrek aukera berriak izan ditzaten bizitzan. Bertan, aintzatetsi egiten dira tokiko ahotsak, eta identitatetik nahiz aniztasunetik abiatuta eraikitzen da. Eta badago luze irauten duen konstante bat: etengabeko ikaskuntza, zeinak ahalbidetzen baitu aldatzeko eta berritzeko prest egoitea, eraldaketa saihetsezina baita.

Liburutegi imajinatuak espazio malgua da, eta erdigunean jartzen ditu pertsonak, horien jardunak eta beharrak. Komunitateak behar duen ordutegia du, eta

eraikinaren mugetatik haratago ere ematen du arreta. Liburutegia ez baita eraikin bat, zerbitzu bat baizik, baina baita harreman eta komunikazio sare bat ere, komunitateko kide guztiengana heltzen dena.

Liburutegi imajinatua zerbitzu atsegina da, eta herritarrek beraiena dela onartu eta sentitzen dute. Liburutegi imajinatuak babestu egiten du bere ingurunea, eta berrikuntza nahiz hobekuntza aukera nabarmenak eskaintzen ditu osasunerako, ingurumenerako eta pertsona ororen integraziorako, bereizketarik egin gabe.

Liburutegi imajinatua konprometitua dago bere komunitatearekin, eta eraldaketarako funtsezko eragilea da, arrapaladan aldatzen den testuinguruan. Espazio demokratikoa da, eta, aldi berean, demokrazia sortzeko espazioa, eztabaida egitekoa eta aniztasunean nahiz tolerantzian oinarrituta elkartzekoa. Liburutegia beti izango da giza eskubideen lorategia, eta ideiak zein pentsamenduak askatasunez landatu eta loratuko dira bertan.

Liburutegi imajinatua herritarren etxean luzapen abegitsua da, sozializatzeko tokia, babeslekua. Jolasteko eta dibertitzeko espazioa da; artea, literatura, zientzia eta giza jakintza guztiak sortu eta berregiteko tailerra.

Liburutegi imajinatua etorkizunari begira dago beti, baina bihotza iraganean jarrita du, arbasoetan, jatorrizko herrietan. Bertan, usainak aditu eta koloreak ikus daitezke, eta zapore anitz probatu. Sukaldea eta baratzea da; ohe biguna; mahai partekatua. Liburutegia jaberik

gabeko etxe handia da, eta bertan inor ez dago soberan, edozein lekutatik datorrela edo edozein lekutara doala, ezta etxerik ez badu ere.

Liburutegi imajinatuak tokikoari erreparatzen dio, baina ikuspegi globala ere badu, eta ulertzen ditu mundua eta bertako loturak; ulertzen du zelako potentziala duten; kultura aniztasunekin solastatzen da, eta pentsatzeko modu berriak aurkitzen ditu. Liburutegi imajinatuak ulermena, irekitasuna eta onarpena funtsezko elementutzat dituen herritartasun globala sustatzen du.

Liburutegi imajinatua inspiraziorako espazioa da; eraldaketarako tresna; gizarte egitura eraiki eta berre-raikitzeko laborategia; gizarteratzeko lekua eta mundu guztiarentzat irekita dagoen tokia, egunero harritzen gaituena. Pertsona bakoitzak bere auzora, etxera eta bizitzara eramán ditzan —doan— banatu nahi diren itxaropenen biltegia da.

Liburutegi imajinatua garatzen ari den ametsa, erreallitate eratua edo etorkizun aurreratua da, egunero, munduko txokoren batean.

Komunitateak ereiteko lorategia da.

ERREFERENTZIAK

Aabø, S., & Audunson, R. (2012). *Use of library space and the library as place*. *Library & Information Science Research*, 34(2), 138-149.
<https://doi.org/10.1016/j.lisr.2011.06.002>

Andrade, P. (2012). *Modelo de evaluación para identificar el aporte de las bibliotecas públicas en el desarrollo de sus comunidades*. DIBAM-CERLALC. <https://cerlalc.org/publicaciones/modelo-de-evaluacion-para-identificar-el-aporte-de-las-bibliotecas-publicas-en-el-desarrollo-de-comunidades/>

Arendt, H. (2009). *La condición humana*. Paidós.

Black, A., & Pepper, S. (2012). *From Civic Place to Digital Space: The Design of Public Libraries in Britain from Past to Present*. *Library Trends*, 61(2), 440-470.
<https://doi.org/10.1353/lib.2012.0042>

Boladeras Cucurella, M. (2001). *La opinión pública en Habermas / Anàlisi: quaderns de comunicació i cultura*.
<https://www.raco.cat/index.php/Analisi/article/download/15072/14914/>

Boonaree, C., & Goulding, A. (2019). *The role of community libraries in empowering female citizens in disadvantaged areas of Thailand*. IFLA WLIC, Atenas, Grecia. <http://library.ifla.org/2481/>

Calvino, I. (2012). *Las ciudades invisibles*. Siruela.

Canadian Museums Association (CMA) (2019). *Value Study of GLAMs in Canada*. [Report for the Ottawa Declaration Working Group].
https://museums.ca/uploaded/web/LIBRARY_20-032_HTML/pdfs/value_study_GLAMs_EN.pdf

Careaga, R. (2014ko abuztuaren 17a). *El desafío de habitar las bibliotecas*. <https://www.latercera.com/noticia/el-desafio-de-habitar-las-bibliotecas/>

Chiuminatto, M., Lipeikaite, U. y Oyarzún, G. (2018). *Guía para el estudio de usuarios en bibliotecas públicas*. CERLALC. <https://cerlalc.org/wp-content/uploads/2018/09/Gu%C3%ADa-para-el-estudio-de-usuarios-en-bibliotecas-p%C3%BAblicas.pdf>

Eco, U. (2016). *El nombre de la rosa*. Lumen.

Electronic Information for Libraries (EIFL) (2014). *Creative use of ICT: Innovation Award*. <https://www.eifl.net/eifl-in-action/creative-use-ict-public-libraries-5>

Gill, P. (2001). *Directrices IFLA/UNESCO para el desarrollo del servicio de bibliotecas públicas*. <https://www.ifla.org/files/assets/hq/publications/archive/the-public-library-service/pg01-s.pdf>

Goulding, A. (2009). *Engaging with community engagement: public libraries and citizen involvement*. *New Library World*, 110(1/2), 37-51. <https://www.emerald.com/insight/content/doi/10.1108/03074800910928577/full/html>

Griffin, S. M. (1998). Taking the initiative for digital libraries. *The Electronic Library*, 16(1), 24-27. <https://doi.org/10.1108/eb045610>

Habermas, J. (1994). *Historia y crítica de la opinión pública. La transformación estructural de la vida pública*. Barcelona: GG MassMedia.

Habermas, J. (2010). The Public sphere: An encyclopedia article. In J. Gripsrud & M. Eide (Eds.), *The Idea of the public sphere: A Reader* (114.-120. or.). Lexington Books.

Imholz, S. (2008). *Public Libraries by Design: Embracing Change at Low Cost*. *Public Library Quarterly*, 27(4), 335-350.

<https://doi.org/10.1080/01616840802477110>

Koren, M. (2009). *Public libraries*. In I. Abdullahi (Ed.), *Global Library and Information Science. A Textbook for Students and Educators* (311.- 328. or.). IFLA.

Leckie, G.J. & Hopkins, J. (2002). *The Public Place of Central Libraries: Findings from Toronto and Vancouver*. *The Library Quarterly*, 72(3), 326- 372.

Liu, L. G. (2004). *The contribution of public libraries to countrie's economic productivity: a path analysis*. *Library Review*, 53(9), 435-441. <https://doi.org/10.1108/00242530410565210>

Mchombu, K, & Beukes-Amiss, C.M. (2015) *The role of libraries in contemporary African society*. *Library Trends*, 64(1), 112-124. <https://core.ac.uk/download/pdf/158312869.pdf>

Nieto, Y. (2012). *La contribución de las bibliotecas públicas al desarrollo de los países: una agenda de investigación*. CERLALC. <https://cerlalc.org/publicaciones/la-contribucion-de-las-bibliotecas-publicas-al-desarrollo-de-los-paises-una-agenda-de-investigacion/>

Oldenburg, R. (1991). *The Great Good Place*. Paragon House.

Oswell, I. (2017). *Libraries Kick-Starting the Next Generation of Entrepreneurs*. <https://dcmslibraries.blog.gov.uk/2017/09/18/libraries-kick-starting-the-next-generation-of-entrepreneurs/>

Oyarzún, G. (2017). *Esto no es una biblioteca: cultivando conexiones, fortaleciendo comunidades*. Andaluziako Liburutegien XIX. Jardunaldietan aurkeztutako dokumentua (Huelva, Espainia). <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6540527>

Scott, R. (2011). *The Role of Public Libraries in Community Building*. *Public Library Quarterly*, 30(3), 191-227.

<https://doi.org/10.1080/01616846.2011.599283>

Shaffer, M. (2011). *Bringing Perspective to the Value of the Vancouver Public Library*. <https://www.sfu.ca/mpp/marvinshaffer/trim/s/uploadFile/VPL.docx>

Strode, I. (2012). *Economic value and impact of public libraries in Latvia* [Study report]. Trešais tēva dēls. <https://culturelablv.files.wordpress.com/2009/04/economic-value-and-impact-of-public-libraries-in-latvia.pdf>

The State Library of New South Wales (2012). *People places: A guide for public library buildings in New South Wales* (hirugarren argitalpena). Library Council of New South Wales. <https://www.sl.nsw.gov.au/public-library-services/people-places>

UNESCO (1994). *Manifiesto de la UNESCO sobre la biblioteca pública*. <http://unesdoc.unesco.org/images/0011/001121/112122so.pdf>

Urban Libraries Council (2008). *Making Cities Stronger: Public Library Contributions to Local Economic Development*. Urban Libraries Council and Urban Institute.

VV. AA. (1997). *Gestión Participativa en bibliotecas públicas*. DIBAM. https://www.academia.edu/1174248/Gesti%C3%B3n_Participativa_en_Bibliotecas_P%C3%ABlicas_Los_desaf%C3%ADos_de_trabajar_con_la_Comunidad

Witteveen, A. (2016). *The people's place*. *Library Journal*, 141(15), 43.

Gonzalo Oyarzún

LIBURUTEGI IMAJINATUA Komunitateak ereiteko lorategia

Gonzalo Oyarzún liburuzain txiletarrak liburutegietan paradigma aldatzeko beharra berresten du liburu honetan. Liburutegi publikoek gaur egun gure bizitzaren dimentsio ezberdinetan duten rolari buruz hausnartzera gonbidatzen gaituzten esperientzia eredugarriak bildu ditu bertan. Hain zuzen, bere ahaleginen erdigunean pertsonak jar ditzan liburutegiek komunitatearekin eta garapen sozial, ekonomiko eta kulturalarekin dituzten harremanetatik abiatuta, gaur egun, loratzen ari diren hainbat liburutegiren esperientziak partekatzen ditu.

ALDEEk euskaraz argitaratu duen liburu honetan Maite Gurrutxagaren azalak zabaltzen du atea eta Iban Zalduaren *Ipuin itxurako hitzaurre* batek egiten digu harrera. Ongi etorri liburutegi imajinatura!